

E  
U  
S  
K  
A  
R  
A

*Jaione ELIZAGOIEN ELIZEGI*

*HAUR HIZKERA ETXETIK  
ESKOLARA: EZAUGARRIAK,  
ERABILERA ETA BAZTANGO  
KASUA*

*GBL 2013*

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

*Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

***HAUR HIZKERA ETXETIK ESKOLARA:  
EZAUGARRIAK, ERABILERA ETA  
BAZTANGO KASUA***

Jaione ELIZAGOIEN ELIZEGI

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Jaione ELIZAGOIEN ELIZEGI

**Izenburua / Título**

Haur Hizkera etxetik eskolara: ezaugarriak, erabilera eta Baztango kasua

**Gradu / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria / Director-a**

Ekaitz SANTAZILIA SALVADOR

**Saila / Departamento**

Filología y Didáctica de la Lengua  
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2012/2013

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberrikoa / Primavera

**Hitzaurrea\***

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Gradua, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikokoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots,

---

\* Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau zuzendu duen Ekaitz Santazilia Salvadorri (NUP-eko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko irakaslea) proiektua bideratu ahal izateko egindako lan eta esfortzu bikainagatik. Aldi berean, nire eskerrik beroenak eskaini nahi dizkiet gaiaren inguruko informazio arras interesgarria utzi didan Paula Kasaresi (NUP-eko irakaslea), baita Baztanen egindako elkarrizketa eta grabazioetan parte hartu duten pertsona guztiei ere.

oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu 0-6 urte bitarteko haurren ikasketa eta heziketa prozesuak ulertu eta behatzeko gizarte, familia, eskola mailan. Gainera etaparen ezaugarri komunikatiboez, sozialez eta afektiboez ohartzeko aukera izan dugu, Haur Hizkeraren erabilera eta ezaugarriak zein diren behatuz. Horrekin batera, gaur egungo gizarteko egoerak eskola eta familiengan zer nolako eragina duen aztertu ahal izan dugu, horrek haurrak gero eta lehenago eskolatzea baitakar, eta beraz, eskolan ikasi beharreko hizkuntza jaso eta formalarekin lehenago lotzen dira. Tutorearen eta irakasleen eginbeharra zein den argi ikusi da, izan ere, irakaslearen paperaz hitz egitean irakasleak bete beharreko helburuak zein diren zehazten baitira, baita etaparen antolaketa eta lege erregularra zein den ere, Haur Hezkuntzako Curriculumaz hitz egin baitugu. Bertzetik, familiaren inplikazioak daukan eraginaz konturatu ahal izan gara, Haur Hizkera etxeko giroarekin lotuta baitago.

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman digu hizkuntzaren jabeakuntzaren prozesuaz hitz egin eta garapen horretan zehazten diren etapez mintzatzeko, batez ere, helduek haurrekin hitz egiten duten hizkeraz. Horren erabilera egoki baloratu eta helduen hizkeraren beharra eta erabilera zein den zehaztu eta balorazioa egin ahal izan dugu, beti ere maila ezberdinetako esparruetan zentratuz, mundu, Euskal Herri eta Baztango mailetan hain zuzen.

Halaber, Practicum moduluan zehazten da teorian ikasitakoa praktikarekin erkatu beharra dagoela, guk buruturiko ikerketarekin egin dugun bezala. Lanaren hasieran gaiaren inguruko marko teorikoaz mintzatu baikara, gerora teoria hori Baztango ibarrean nola gertatzen edo aplikatzen den ikusteko. Bertan jasotako datuek gaiaren inguruko hausnarketa egiteko bidea ireki digute. Horrekin batera, gure gaitasun linguistiko eta sozialak garatu ahal izan ditugu, buruturiko grabaketak egin ahal izateko, bai Baztango helduekin zein umeekin ere kontaktua izan baitugu.

## Laburpena

Lan honetan haur hizkeraz aritu gara eta bereziki Baztango Euskal Haur Hizkeraz (BHH). Lehenik eta behin, Haur hizkera terminoaren definizioa zehaztu dugu eta ongi bereizi zer den hurrek egiten duten hizkera eta hurrei egiten zaiena. Gu bigarrenaz aritu gara. Ondoren, BHH-ren erabileraren azterketa egin dugu, bai etxean bai eskolan, euskararen gainean eginak dauden zenbait ikerketa oinarri hartuta. Horrekin batera, hizkeraren zenbait ezaugarri ere aztertu ditugu (berbalak eta ez berbalak), ezaugarri unibertsaletatik hasi eta BHH-ren ezaugarrietaraino. BHH-ren erabilera nahiko usua dela oinarritzat harturik, heldu eta haurren arteko lau egoera ezberdin grabatu ditugu, baita adin eta herri ezberdinetako sei pertsona elkarrizketatu ere, ikerketa horrek emandako emaitzak aztertu dira erabileraren eta arrazoen inguruko ikuspegitik. Bertzalde, Haur Hizkerak eskolan izan behar duen lekuaz hausnarketa egin dugu. Azkenik, gaiaren inguruko ondorioak atera ditugu, eta aldi berean, zenbait kezka edo galderen bidez hausnarketarako bidea irekia utzi dugu.

*Hitz gakoak:* Haur hizkera (HH); Baztan; erabilera; ezaugarriak; Haur Hezkuntza.

## Resumen

Este trabajo parte del concepto del habla del niño, con el propósito de entender la diferencia entre el habla producido por el niño y el habla dirigido al niño. Nosotros hemos tratado la segunda forma del habla teniendo como referencia el Valle de Baztán: Baztango Euskal Haur Hizkera (BHH). Se señalan las múltiples formas que puede adoptar el uso del BHH en el ámbito escolar y familiar. De igual manera, hemos definido las características del habla (verbales y no verbales); hemos comenzado por conocer las características universales, hasta describir las de la zona de referencia (Baztán). Haciendo énfasis en el frecuente uso del BHH, hemos grabado cuatro situaciones diferentes donde se refleja la interacción entre adulto y niño/a. También se han entrevistado seis personas de diferentes edades y pueblos. De este modo, se ha tratado la información que nos ha aportado esta investigación desde la perspectiva del uso del habla y de los motivos respecto a su uso. Por otro lado, hemos

---

reflexionado sobre el papel del BHH en el ámbito escolar. Finalmente, hemos incluido algunas conclusiones sobre el tema tratado; dejando sitio para reflexionar sobre preocupaciones y cuestiones abiertas.

*Palabras clave:* El habla dirigido al niño (HH); Baztán; el uso; características; Educación Infantil.

### **Abstract**

In the following document, we have been working on children language and we have focused it especially in Baztan. First of all, we have specified the definition of it, and we have also divided two different terms: the language the children use, and the one it is used with them. We have focused our attention in the last one. After that, we have done a research about the children language in Baztan, both in school and at home. For that, we have used some different references about Basque. We have also been working on the characteristics of the language mentioned before (verbal and non-verbal), starting with more general ones and finishing with the ones of our topic. Focusing more in our research, we have recorded four different situations of children and adults and we have also interviewed six different people of different ages and towns. Then, we analyzed the results. In addition, we have reflected about the place that children language should have at school. Finally, we have drawn some conclusions but also some worries and questions.

**Keywords:** Children language; Baztan; characteristics; the use; Infant Education.

### **Résumé**

Tout au long de ce travail, nous avons traité de la langue maternelle, et plus particulièrement, de la Langue maternelle des Enfants du Baztan (LEB). Tout d'abord, nous avons tenté de définir les termes « Langue maternelle » et nous avons bien distingué la langue qu'ils parlent et la langue qu'on leur parle. Nous traiterons ici, plus particulièrement du deuxième cas. Nous avons, par la suite, analysé la pratique de la LEB, à l'école, à la maison, en se basant sur quelques travaux de recherche précédemment réalisés sur la langue basque. De plus, nous avons également traité quelques caractéristiques de la langue (verbales ou non), en partant de caractéristiques universelles pour en arriver à des



---

caractéristiques plus spécifiques à la LEB. En se basant sur une pratique plutôt courante de la LEB, nous avons constaté quatre différences de situation entre adultes et enfants. Nous avons également interviewé six personnes de divers villages et d'âges différents. Puis nous avons analysé les résultats de notre étude du point de vue de l'utilisation de la langue et des raisons de son utilisation. D'autres parts, notre réflexion a également portée sur la place que doit avoir la langue maternelle à l'école. Pour terminer, nous avons déterminé les conséquences et conclusions liées au sujet, et nous avons, enfin, laisser la voie ouverte à la réflexion via quelques doutes et questions.

*Mots-clefs:* Langue Maternelle; Baztan; caractéristiques; l'utilisation; école maternelle.

---

---

## **Aurkibidea**

<b>Sarrera</b>	<b>1</b>
<b>1. Antecedentes y objetivos</b>	<b>3</b>
1.1. Investigaciones anteriores acerca del HH	3
1.1.1. Diferencias socio-económicas y culturales	5
1.1.2. Variaciones del uso del EHH	7
1.2. Nuestra investigación	8
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>11</b>
2.1. Haur Hizkeraren ezaugarriak	11
2.1.1. Orokorrak	11
2.1.2. Euskal Haur Hizkeraren ezaugarriak (EHH)	12
2.2. Hizkera ez berbala	19
2.2.1. Keinuak	19
2.2.1.1. Begirada	19
2.2.1.2. Aurpegiko espresioak	20
2.2.1.3. Buruaren mugimenduak	21
2.2.1.4. Hurbiltasuna	21
2.3. Haur Hizkera eta hezkuntza	21
2.3.1. Haur Hezkuntzako Curriculumarekiko lotura	22
2.3.2. Irakaslearen jokaera	23
<b>3. Materiala eta metodoak</b>	<b>25</b>
<b>4. Emaizak eta horien eztabaida</b>	<b>27</b>
4.1. Lehenengo zatia: grabaketak	27
4.1.1. Maila fonetikoa	29
4.1.2. Maila morfosintaktikoa	31
4.1.3. Maila lexikoa	32
4.1.4. Esanguratsuak diren zenbait afera	33
4.2. Bigarren zatia: elkarrizketak	33
4.2.1. Haur hizkera erabiltzen dutenak eta ez dutenak	33
4.2.2. Haur hizkeraren ezaugarri nagusienak	34

---

4.2.3. Helburu afektiboa edo erraztekoa	36
4.2.4. BHH erabiltzeko adin tartea	36
4.2.5. BHH-ren erabileraren garrantzia: orokorrean etxean eta eskolan	37
<b>Ondorioak</b>	<b>39</b>
<b>Erreferentziak</b>	<b>43</b>

---

## Sarrera

Haur Hizkeraz hitz egiten hasi aitzinetik, “hizkera” hitzaz egiten dugunean zertaz ari garen argitu beharra dago. Hizkerak hitz egiteko moduari egiten dio erreferentzia, egoera jakin batzuei egokitutako hitz egiteko moduari alegia (Aurkerena *et al.*, 1999: 9).

lido horretatik jarraikiz, Haur Hizkeraz hitz egitean ere zertaz ari garen zehazteko premia dago; arras gauza ezberdina baita haurrek egiten duten hizkeraz edota helduek haurrengana zuzentzean erabiltzen duten hizkeraz mintzatzea. Lehenengo ikuspegiak haurren hitz egiteko moduari erreparatzen dio, haurrak hitz egiten hasten direnetik aurrera erabiltzen duten hizkera horri hain zuzen (Zubiri, 2002: 16).

Baina lan honen muina bigarren ikuspegi horretan dago, helduek haur bati zuzentzean erabiltzen duten hizkera mota horretan alegia. Zubirik (1995: 176) terminoari emandako definizioan aski argi erakusten duen bezala, helduak haurrekin jarduterakoan erabiltzen duen hizkera berezia da; izan ere, aski nabarmena baita pertsonok geure hizkera gauden egoerara egokitzeko gai izan behar dugula. Etxean eta lantegian erabiltzen diren hizkuntzak ez dira berdinak, gurasoekin edo herriko lagun batekin erabiltzen den hizkera mota ez da berdina (Etxeberria, 2003: 38). Hortaz, umekin mintzatzean ere horrela gertatzen ote da? Geure hizkera aldatu egiten ote dugu? Berdin hitz egingo al diogu zortzi hilabeteko ume bati eta zortzi urteko neskatok edo mutikok bati? (Aurkerena *et al.*, 1999: 9).

Lan honetan haur hizkeraz hitz egitean haurrei zuzentzen zaien bariedade horretaz arituko gara. Badira helduek erabiltzen duten bariedade honi *ama hizkera (motherese)* edota haurrei zuzendutako hizkera (*Children's Directed speech, CDS* laburtzapenetan) (Snow, 1986) deitu izan diotenak. Gauzak hala, lan honetako aztergunea zein den argi geratu dadin helduek haurrekin hitz egitean erabiltzen duten hizkera mota horri deituko diogu Haur Hizkera (HH).

Dokumentuan zehar HH terminoarekin lotutako bertze zenbait hitz ere erabili ditugu; hala nola, Euskal Haur Hizkera (EHH), baita Baztango Haur Hizkera (BHH) ere.

---

---

# 1. ANTECEDENTES. NUESTRA INVESTIGACIÓN

## 1.1. Investigaciones anteriores acerca del HH

Existen numerosos autores que han estudiado el habla que utilizan los adultos cuando se dirigen a niños. Ya hace muchos años que los investigadores se dieron cuenta de que cuando los adultos se dirigen a niños adoptaban un habla diferente al que utiliza un adulto. Pero, ¿cuál es el objetivo de su uso?; ¿quién lo utiliza y cómo?; ¿Cuándo se utiliza? En este trabajo, primeramente vamos a tratar de responder a estas preguntas. Para ello, hemos investigado las características del HH y después hemos observado de qué manera se aplican en el habla de Baztán.

Son muchos los expertos en desarrollo del lenguaje que discuten sobre el **por qué** de la utilidad del HH (cf. , por ejemplo, Fernald *et al.*, 1989; Zubiri, 2002). Algunos expertos sugieren que la conducta de los adultos que optan al utilizar el HH para mantener la atención de los niños. Las repeticiones y variaciones atraen la atención de estos (Fernald *et al.*, 1989: 479-480); otros consideran que el uso del HH permite mantener un nivel óptimo de respuesta en los niños (*ibid.*). El adulto parte de la base de que el niño es un interlocutor suficientemente competente, por lo que el empleo del HH es un intento de mantener la atención del niño en la conversación (Owens, 2003: 177); otra razón que se ha propuesto para justificar el uso del HH es que sirve de ayuda en la enseñanza del lenguaje, ya que un habla simplificada facilita el aprendizaje de una lengua (Brown, 1977: 1-27). Asimismo, según dice Zubiri (1995: 201), la utilización del HH tiene el fin de actuar como un escalón en el proceso de adquisición del lenguaje adulto.

En cualquier caso, se ha podido observar que las adaptaciones del HH cumplen con tres funciones mayoritariamente: por una parte, obtener y mantener la atención de los niños, por otra parte, facilitar el establecimiento del vínculo emocional, y por último, permitir establecer una comunicación (verbal o no verbal) entre el niño y el adulto, simplificando a veces el habla al nivel del niño (Owens, 2003: 177; Fernald *et al.*, 1989: 478).

---

Ligado a los objetivos planteados, Zubiri (2002: 22) nos habla de que para establecer un **límite del uso** del HH en el tiempo, se toma en cuenta la edad del niño. Esta comunicación entre el niño y el adulto comienza desde el momento en el que el adulto interpreta determinadas conductas de los niños como intentos comunicativos a los que opta por responder, ya sea la sonrisa, eructos, estornudos, miradas, etc. (Owens, 2003: 177). Ese hábito de reaccionar y responder del adulto se mantiene hasta que el niño empieza a comunicarse verbalmente, es decir, durante el periodo de cambio de la etapa prelingüística a la fase lingüística (Zubiri, 2002: 22). Una vez que el niño esté en la etapa lingüística de la adquisición del lenguaje, el adulto dejará de utilizar el HH, según las situaciones o disposiciones de cada adulto. En la parte empírica del trabajo podremos especificar cuál es el límite temporal establecido por los hablantes de HH.

Está claro que **quien** hace uso del HH es el adulto, aunque hemos de decir que no todos los adultos son partidarios de utilizarlo, por diversos motivos (Zubiri, 2002: 23). Profundizaremos estas razones en la parte práctica del trabajo (cf. §4.). Del mismo modo, entre los adultos que sí son partidarios de su uso, no todos los adultos lo utilizan de la misma manera, ya que cada cuál lo utiliza con fines diferentes. Entre los usuarios más habituales se pueden clasificar dos grupos: padres/madres y abuelos (*ibid.*). Habitualmente, el primer grupo suele abandonar antes el uso del HH, ya que lo hacen con un carácter didáctico. En cuanto el niño empieza a hablar, padres y madres abandonan el empleo del HH, con el fin de que a sus hijos les sirva como referencia el lenguaje adulto y no este (*ibid.*).

Los miembros del segundo grupo (abuelos) normalmente suelen ser los últimos en dejar de lado el HH. Como afirma Zubiri (2002: 23), puede que el motivo sea afectivo, es decir, que la razón por la que lo utilicen sea establecer un vínculo afectivo más fuerte, uno de los objetivos ya mencionados al principio de este apartado (cf. *supra*).

Aparte de estos dos grupos (padres y abuelos), Zubiri (2002: 23) nos habla de un tercer grupo que está constituido por los propios niños. La cuestión está en fijar la edad en la que la criatura ha adquirido las competencias en el uso del HH.



---

En cuanto a la pregunta de **cuándo** se utiliza el HH, Owens (2003: 173) habla de dos situaciones que empujan a las madres a hablar con sus hijos. En primer lugar, suele ser una respuesta provocada por los propios niños, ya sea por sus gestos, balbuceos, sonrisas, etc. En segundo lugar, cuando los adultos se sienten impulsados a hablar sobre lo que están haciendo en ese momento. Utilizando el HH, justifican sus acciones, piden permiso a sus hijos, etc.

Por último, abordaremos el **cómo** se utiliza el HH. La respuesta no es única, como ya lo han demostrado varias investigaciones realizadas sobre el tema (cf. Fernald y Simón, 1984; Papousek, Papousek y Haekel, 1987; Fernald *et al.*, 1989). Se ha podido observar que aunque tal vez existan varias características universales, cada HH tiene sus características propias. Por eso las características de un lugar concreto no son siempre generales y válidas para otras culturas (Fernald *et al.*, 1989: 478). En el siguiente apartado vamos a hablar sobre las diferencias sociales del uso del HH, primeramente en diferentes culturas del mundo y seguidamente centrándonos en la lengua vasca. Al analizar la información obtenida en la investigación empírica retomaremos este tema.

#### *1.1.1. Diferencias socio-económicas y culturales.*

Los patrones de interacción que hemos definido hasta ahora reflejan las conductas habituales en algunas culturas, sin embargo, en otras, en lo que al HH se refiere, las costumbres cambian (Owens, 2003: 179). En la investigación que hizo Firth al respecto (1957), pudo observar que era imprescindible tener en cuenta las características formales del HH según el contexto y las situaciones de comunicación.

Según afirman Schieffelin y Ochs (1986: 175), durante la historia, el HH ha sido considerado una vía para facilitar la adquisición del lenguaje, como método para la adquisición del lenguaje. Sin embargo, investigaciones más recientes muestran otra cosa.

En algunas culturas, las madres hablan a sus hijos con menos frecuencia, pero realizan con ellos otras actividades comunicativas que no se dan en nuestra cultura (Owens, 2003: 179). Por ejemplo, las madres norteamericanas tienden a dar más información que las japonesas y utilizan más preguntas y enunciados gramaticalmente correctos cuando hablan con sus hijos (*ibid.*). En

---

cambio, las madres japonesas están más orientadas hacia los sentimientos y utilizan más sonidos sin sentido y onomatopéyicos.

En los resultados obtenidos en las investigaciones realizadas con gente de diversas culturas de clase social baja, según afirman Schieffelin y Ochs (1986: 174), son muchas las diferencias que se pueden observar. En el caso de los indios, por ejemplo, los niños tienen que repetir todo lo que les digan los adultos, aunque no entiendan lo que estén diciendo, la comprensión queda en un segundo plano. Otro caso muy diferente es el de los australianos e indonesios, ya que optan por ignorar la forma de toda de toda la comunicación verbal y no verbal para centrarse en el significado.

Estas diferencias culturales y socio-económicas reflejan los valores y creencias de cada sociedad (Owens, 2003: 180). Es por eso que debemos tener muy en cuenta que cuando se hagan investigaciones en torno al tema, aunque se lleve a cabo un análisis formal no se debe dejar de lado la interpretación sociocultural que le sigue.

De esta manera, se plantean dos tipos de adaptaciones comunicativas según el sujeto (niño) o según la sociedad y contexto de cada niño (Schieffelin y Ochs, 1986: 174); en primer lugar, la perspectiva que se centra en el niño, donde el adulto intenta entender y tener en cuenta lo que el niño dice o transmite; en segundo lugar, la visión que se centra en el contexto. En este caso, se espera que el propio niño se acomode a actividades que se le planteen. Sin embargo, es conveniente remarcar que las dos perspectivas mencionadas no tienen por qué ser incompatibles, ya que en muchas sociedades aparecen al mismo tiempo. Por ejemplo, en muchas comunidades es común que se planteen actividades comunicativas diciendo algo al niño y esperando al mismo tiempo que el niño repita lo dicho (*ibid.*).

Además, estas dos adaptaciones comunicativas pueden variar según la edad del niño. Habitualmente, en la mayoría de las sociedades el adulto tiende a acomodar su habla a la del niño para que este lo entienda, y después es el mismo niño quién se adapta a la realidad en donde vive (Schieffelin y Ochs, 1986: 175). Por ejemplo, en algunas sociedades la adaptación comunicativa centrada en el contexto comienza desde que los niños son muy pequeños y puede durar hasta la infancia, mientras que en otras sociedades a parte de centrarse en el contexto, tenga mucha importancia lo que los propios niños produzcan en las

---

primeras conductas de sus vidas, ya sean gritos, sonrisas, etc. (Schieffelin y Ochs, 1986: 175). Más adelante intentaremos contrastar y analizar estas dos visiones en el valle de Baztán.

### 1.1.2. Variaciones del uso del EHH

Si en todas las culturas existen diferencias y variaciones entre culturas es seguro que en nuestra propia cultura también existan algunas variaciones de las características del EHH según la regularidad de su uso. Además, como podremos observar más adelante en la parte práctica del trabajo, es posible que se den diferencias internas en la propia cultura, ya que cada hablante es libre de hacer un uso más estricto o más laxo del EHH. En una investigación realizada por Zubiri (1999), él mismo pudo comprobar cómo el hablante algunas veces optaba por utilizar ciertas características del EHH y en otras ocasiones no.

En lo que a fonología se refiere, es posible, por ejemplo, que en una frase donde haya varios fonemas que normalmente se palatalicen, la primera vez se haga y la segunda no (cf. 1.). No existe ninguna regla que diga que en todos los casos la palatalización deba ser sistemática. He aquí unos ejemplos analizados por Zubiri (2002: 24):

- (1) a.- *Putxu-putxu egin behar al duzu?*  
b.- *Sartu xorroan.*  
c.- *Non da izeba Argiñe? Non da ixeba?*

Como se puede ver, la utilización de la palatalización es muy irregular. Aunque no se haya investigado sobre la razón de esta asistematicidad, es posible que haya una función didáctica. Es decir, que el adulto opte por imitar los fonemas que el niño palataliza de forma errónea, para que de este modo vaya adquiriendo los fonemas correctamente (Zubiri, 2002: 25).

Por otra parte, aunque exista un léxico propio del EHH, no siempre se utiliza. En algunos casos (cf. 2.) es muy frecuente que en una misma frase aparezca la misma palabra en el lenguaje habitual del adulto y en el HH. He aquí algún ejemplo de Zubiri (2002: 27), dónde se aprecia lo mencionado:

- (2) a. - *Non da **ttatta**? Non da **zapata**?*  
b. - ***Erori** egin da! **Punpa** egin du!*  
c.- ***Lolo** paratu behar al duzu? **Paratu, paratu, lo!***

---

Hay palabras que perduran más allá de la media de edad del niño y uso del EHH, como por ejemplo, *punba* 'caerse' y *txitxi* 'carne'.

En conclusión, con lo que hemos podido analizar hasta ahora, hemos visto que ni pocas de las características del HH pueden ser universales. Pero... ¿qué sucede dentro de una misma cultura? ¿Es posible que haya diferencias entre los diversos municipios o entornos de la propia cultura? La respuesta indudablemente es afirmativa. Al final del trabajo podremos observar de qué manera suceden estas excepciones en el BHH.

## **1.2. Nuestra Investigación**

Como ya se ha mencionado anteriormente (cf. §1.1.), hemos llevado a cabo una investigación sobre el EHH de Baztán. La investigación ha tenido dos objetivos principales: por una parte, intentar verificar o anular ciertas hipótesis iniciales; por otra parte, poder observar si en una comunidad (Baztán) existen diferencias en cuanto al uso del EHH.

Baztán está situado al norte de la Comunidad Foral de Navarra. Con sus 15 pueblos es el más extenso de los 265 municipios navarros, sumando los 8.081 habitantes actuales según la revisión del padrón municipal navarro del año 2010 realizado por el Instituto Nacional de Estadística. Las 15 localidades que conforman el Valle se hallan agrupadas en cuatro cuarteles, las cuales están administradas por un sólo ayuntamiento (Lakar eta Salaburu, 2006: 3-4):

- Baztangoiza: Erratzu, Azpilkueta, Arizkun y Amaiur
- Elizondo: Elizondo, Elbete y Lekaroz
- Erberrea: Irurita, Gartzain, Arraioz y Oronoz
- Basaburua: Ziga, Aniz, Berroeta y Almandoz

El lengua principal del valle es el euskera, ya que el 77,22% lo utiliza, según los datos ofrecidos en el año 2008 por el INE. Gracias a las estadísticas, sabemos que los habitantes de los pueblos pequeños utilizan más la lengua que los de los pueblos más grandes. La variedad que se utiliza en el valle, según Zuazo (2008) en su última clasificación, anda a caballo entre el dialecto navarro y el navarro-labortano.

Esta variedad ha sido estudiado, principalmente por Mariano Izeta (†), Pello Salaburu y Maite Lakar. Como bien mencionaba Izeta (1996: 13), en Baztán, siendo un valle de quince pueblos, es habitual que haya diferencias entre el

---

habla de un pueblo a otro, aunque todos formen parte de la misma variedad. Sin embargo, Salaburu (1996: 19) dice que año tras año, esa variación interna va diluyéndose y una de las razones más importantes que aporta es la aparición del “euskara batua”. Dicho esto, es lógico pensar que estas pérdidas hayan afectado también al BHH. Como hemos comentado al principio de este apartado, el BHH es un lenguaje que sigue viva en el valle. Sin embargo, todavía no se ha llevado a cabo ninguna investigación o recopilación de datos sistemática.<sup>1</sup>

Son muchas las interrogantes que se han planteado tales como si en el futuro se seguirán respetando las características de este habla o incluso, si los jóvenes lo preservarán. Así pues partimos de las iniciales hipótesis, que hemos tratado de cotejar:

1.- Teniendo en cuenta que algunas características del dialecto del valle ya se han perdido, es muy probable que haya ocurrido lo mismo con el BHH. Es por eso, que la gente mayor lo utilizará con más frecuencia y riqueza que los jóvenes. Los más veteranos serán los que aparte de utilizarlo, conozcan más características sobre el BHH, sobre todo el léxico.

2.- Algunas características del BHH, diferirán de las del EHH explicadas anteriormente (cf. §1.1.2.),

3.- En general, la gente de Baztán mostrará una actitud positiva hacia el uso del BHH, por motivos afectivos, pero la frecuencia de su uso será mayor en el caso de la gente más adulta, ya que los jóvenes tienen otro tipo de visión y muchas veces suelen querer dejar atrás lo tradicional y optar por algo diferente y nuevo.

4.- Viendo que con el dialecto del valle ocurre lo mismo, creemos que el BHH se utilizará con mayor frecuencia en los pueblos pequeños que en los grandes.

Para testar estas hipótesis hemos utilizado dos tipos de herramientas. Por una parte, hemos realizado cuatro grabaciones diferentes y en cada uno de ellos ha participado un adulto. He aquí los sujetos que han participado en las grabaciones:

- E80: 80 urteko emakumea / mujer de 80 años.

---

<sup>1</sup> Nos ha servido de gran utilidad como punto de partida la breve pero interesante lista de palabras recopiladas por Paula Kasares. Agradecemos a la autora la cesión del manuscrito para este trabajo.

- 
- G52: 52 urteko gizona / varón de 52 años.
  - E21: 21 urteko emakumea / mujer de 21 años.
  - M8: 8 urteko mutila / varón de 8 años.

Aparte de los adultos, han participado un niño y una niña. El niño tiene 2:02 años y ha colaborado en las grabaciones realizadas con M80 y M21. La niña tiene 1:08 años y ha interactuado con los sujetos E52 y G8.

Por otra parte, hemos realizado seis entrevistas. Los dos criterios utilizados para la elección de los sujetos han sido la edad y el pueblo. Así pues, hemos dividido a los sujetos en tres categorías según la edad, y entre ellos, la mitad son del pueblo más pequeño del valle, Aniz;<sup>2</sup> y la otra mitad son de Elizondo,<sup>3</sup> el pueblo más grande del valle. Los sujetos serán citados a través de estas siglas:

- AH1: Anizko emakume Heldua, 74 urte (Mujer de Aniz, 74 años)
- AH2: Anizko emakume Heldua, 46 urte (Mujer de Aniz, 46 años)
- AG: Anizko Gaztea, 21 urte (Joven de Aniz, 21 años)
- EH1: Elizondoko gizon Heldua, 75 urte (Varón de Elizondo, 75 años)
- EH2: Elizondoko emakume Heldua, 48 urte (Mujer de Elizondo, 48 años)
- EG: Elizondoko Gaztea, 21 (Joven de Elizondo, 21 años)

---

<sup>2</sup> Pueblo de 73 habitantes según la revisión del padrón municipal navarro del año 2010 realizado por el Instituto Nacional de Estadística.

<sup>3</sup> Pueblo de 3.543 habitantes según la revisión del padrón municipal navarro del año 2010 realizado por el Instituto Nacional de Estadística.

---

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Haur Hizkeraren ezaugarriak

Aski jakina da edozein hizkerak, hizkuntza baten barietate gisa, berezko ezaugarriak izan ohi dituela. Ikerketa anitzek adierazi izan dutenez, helduek haur txikiekin hitz egiterakoan beraien hizkuntza-maila egokitu egiten dute, zer erran behar duten edo nola errango duten ongi neurtuz (Zubiri, 1995: 178). Beraz, pentsatzekoa da EHH-k berezkoak diren zenbait ezaugarri izanen dituela.

Hala bada, ikertzaile batzuek, halaber Azkuek (1891), Lekuonak (1978) edo Aurkerena, Garcia eta Zelaiak (1999) HH-ren ezaugarriak haur txikiekin hitz egitean erabiltzen den lexikora mugatu dituzte, ezaugarri berezko bakarrak lexikoak balira bezala (Zubiri, 2002: 17). Hala ere, badira horretaz gain bertze ezaugarri batzuk agertzen direla erakutsi duten ikertzaileak ere. Hala nola, doinu aldaketak, hizkera normaleko zenbait hots edo fonema aldaketa edota partikula batzuen erabilera morfosintaktiko bereziak. Horregatik guztiagatik, hizkuntzaren azpisistematzat hartu izan da. Richelle-k (1986: 87) arras ongi azaltzen duen moduan, helduek haurrekin duten hitz egiteko moduan agertzen diren ezaugarriak nahiko finkoak dira, testuinguru jakin batzuetan gertatzen direnak, gainera. Hala ere, badira haurrekin erabiltzen den estilo berezi bat bertzerik ez dela erraten dutenak, baita aldaketa fonetiko eta lexiko bereziak dituen azpikode bat bertzerik ez delakoaren alde egiten dutenak ere.

Beraz, ezaugarri horiek, alde batetik, orokorrak izan daitezke, munduko hizkuntza guztietan haurrekin hitz egiterakoan helduek erabiltzen dituzten baliabide eta estrategia linguistiko orokor gisa (Zubiri, 2002: 18), baina kultura bakoitzaren HH-n zentratuz gero, propioak diren ezaugarriak ager daitezke, Euskal Haur Hizkeraren barnean gertatzen den moduan.

#### 2.1.1. Ezaugarri orokorrak

HH-k zer ezaugarri orokor dituen eta zein paper jokatzen duen aztertzen jardun duten autoreen artean, nolabaiteko adostasun bat nabari da (Zubiri, 2002: 18).

---

Alde horretatik, nahiko argi gelditu izan da HH-k honako ezaugarri hauek dituela (Rondal, 1990: 15-53; Serra *et al.*, 2000: 165-171):

- *Ikuspuntu fonetikoaren arabera*: zuzena eta ongi ahoskatua; tonuaren aldetik helduekin erabiltzen dena baino markatuagoa edo enfatikoagoa eta erritmoa zertxobait motelagoa.
- *Ikuspuntu morfosintaktikoaren arabera*: perpausen egitura helduen hizkeran erabiltzen dena baino sinpleagoa da, baina, aldi berean, hurrak duena baino konplexuagoa.
- *Ikuspuntu lexikoaren arabera*: hiztegi berezia erabiltzen da. Haurren orain eta hemen hurbiletatik abiatuz pixkanaka zabaltzen joaten den hiztegia.
- *Ikuspuntu pragmatikoaren arabera*: helduak duen hizkuntza maila hurrak duen hizkuntza gaitasunera egokitzen du. Haurren hizkuntza mailak goiti egin ahalean helduak bere hizkuntzaren maila igotzen du.

Badira ezaugarri horietaz aparte, bertzelako ezaugarri batzuk zehazten dituzten ikerlariak ere. Horrela, bada, Zubirik (1995: 178-179) honakoak gehitu dizkio: alde batetik, errepikakorra dela aipatzen du. Haurrari behin eta berriz errepikatzen zaizkio esaldi berak edo berdintsuak, bai helduak erran dituenak edota hurrak errandakoak. Hori egitearen arrazoia hurrak errandako esaldiak zuzentzea eta osatzea da; bertzetik, esaldi motari buruz ere hitz egiten du, bere erranetan, galdera-erantzun eta agintezko perpaus anitz izaten omen dira, seguruenik, umearen ahozko zein ekintzazko erantzunak bultzatzearen.

Badira, aipaturiko ezaugarri berbal guzti horietaz aparte, ez berbalak diren ezaugarriez ere hitz egiten duten ikertzaileak. Horien artean, Owens-ek (2003: 174-175) adierazten du helduek hurrei hitz egitearekin batera keinu eta aurpegi espresio anitz erabiltzen dituztela, umea adinean gora doan heinean gutxituz doazenak.

### 2.1.2. *Euskal Haur Hizkeraren ezaugarriak (EHH)*

Ezer gutxi aurki daiteke EHH-ren ezaugarrien inguruan idatzirik edo bildurik. Egia da, bilduma eta hitzen bilketa anitz eginak daudela (aurrerago zehaztuko dugu), baina horiek denak EHH-ren ezaugarri lexikoetara bertzerik ez dira mugatzen, gainontzeko ezaugarriak (cf § 2.1.1) kontuan hartu gabe.



---

Denboran atzera eginez, Lekuonak (1921: 31-37) umeen mintzairari buruz lan laburra, baina aldi berean aberatsa aurkeztu zuen. Hala bada, umeen lexikografian erreparatuta, honako lau ezaugarri nagusi hauek azpimarratu zituen: onomatopeiak; itxura aldatutako hitzak; lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak; aditz laguntzailearen ezabaketa.

- Onomatopeiak

Bi eratakoak izan daitezke: batetik, zuzenak, hau da, ahoz imitatzen direnean izadi batek ateratzen dituen berezko hotsak, adibidez, *guau-guau*, *pipia*, *taka*, *pa*, *aupa*, *kikak*; bertzetik, zeharkakoak, non ez diren soinu zuzenak errepikatzen, baizik eta pertsona helduek erabiltzen dituzten hotsak objektu hauekin tratatzen dutenean: *purra-purra* (oiloeekin), *aida-aida* (idiekin), *txiki-txiki* (txerriekin), *tto-tto* (txakurrekin).

- *Itxuraldatutako hitzak*

Helduen mintzairan erabilitako hitzak dira, baina umeekin hitz egiteko erabiltzean zenbait aldaketa pairatzen dituzte, beti ere finkatzeko zail diren arauetan oinarriturik. Umeentzat kontsonante bigunak dira zailenak. Horregatik, maiz gertatzen da /g/ hotsak /p/ eta /k/ bihurtzeko joera (*papo* *baporen* ordez, *koxo*, *goxoren* ordez, *itxuxi*, *itsusiren* ordez). Beraz, umeen mintzairan herskari ahostunak sartzen dira ahoskabeen lekuan. Honekin batera, palatalizazio fenomeno ere bada.

- *Lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak*

Badira umeen mintzairan fonema berak errepikatzen dituzten hitzak (*attatta*, *amama*, *arre-arre*, *pipia*). Hitz horiek dira hipotetikoki hartzen ditugunak, Lekuonak (1921: 31-37) aurkezturiko “aspaldiko” lexikotik bizirik dirautenak bezala (cf. 3.):

- (3)
- a.- *papa* > *ogia*
  - b.- *mama* > *ura*
  - c.- *txitxi* > *haragia*
  - d.- *nini* > *umea*
  - e.- *ttitti* > *bular*
  - f.- *koko* > *arrautza*

---

- *Sintaxia*

HH-ren ezaugarririk ohikoena erraztasuna bilatzea omen da, umeak helduak erraten duena ahalik eta hoberen uler dezan. Hori dela eta, aditz laguntzailea ezabatu egiten da. Gainera, aditz-izena behar den deboran emateko joera dago, lehen, orain edo gero (cf. 4) (Lekuona, 1921: 31-37).

- (4) a. *Nork egiten zuri?*  
b. *Nork eman?*  
c. *Gero emango nik.*

Horrela bada, aditz laguntzailearen ezabaketa arras garrantzitsua den ezaugarrietako bat dugu, umeentzako abestietan ere agertzen baita fenomeno hori, (*ibid.*)

- (5) «*Arre, arre, mandoko:*  
*bihar Tolosarako*  
*etzi Iruñarako.*  
*-Handik zer ekarriko?*  
*-Zapata ta gerriko».*

Denboran hurbilago etorriz, badago EHH-ren ezaugarriak modu sakonagoan aztertu eta bildu duenik, Juan Jose Zubiri hain zuzen. Bera da, Euskal Herri mailan EHH-ko ezaugarriak zeintzuk diren zehaztuz zenbait artikulu eta testu idatzi dituenak (1995; 2002), izan ere, hitzen bilketak bertzerik ez baitaude eginak horiez gain. Hori dela eta, Lekuonak (1921: 31-37) egindako azterketa horretatik abiatuz, baita Itziar Idiazabalen gidaritzapean lanean diharduen ikerketa talde batek jasotako datuetatik ere atera ditu Zubirik ezaugarri horien sailkapena egiteko materialak.

Hurrengo atal hau osatzeko erabili dugun informazioa Juan Jose Zubiriren bi artikulu horietatik ateratakoa izan da (1995: 179-200; 2002: 19-21). Berak buruturiko sailkapenean hiru maila bereizten ditu –fonetiko, morfosintaktiko eta lexikoa– ezaugarri orokorretan (cf. §.2.1.1.). Horiek zati praktikoan murgiltzean berriz ere berreskuratuko ditugu, BHH-ren ezaugarriak aztertzerakoan.

- *Maila fonetikoa*

EHH-k arlo fonetikoari dagokionean berezitasun nabarmenak ditu. Aldaketa hauek fonema kontsonantikoen arloan suertatzen dira, batez ere kontsonante

txistukarien eremuan. Hona hemen sabaikaritze horiek nola gertatzen diren azaltzen duten bi taula:

**1. Taula.** *Txistukarien sailean gertatzen diren aldaketa fonetikoak*

(Zubiri, 2002: 19)

<b>Hotsa</b>	<b>Aldaketa fonetikoa</b>	<b>Adibideak</b>
s	> x	<i>esku &gt; exku, su &gt; xu, asto &gt; axto, sartu &gt; xartu, oso &gt; oxo,...</i>
z	> x	<i>zakur &gt; xakur, izutu &gt; ixutu, zu &gt; xu, zatoz &gt; xatox, zer &gt; xer,...</i>
x	= x	Ez da aldaketa fonetikorik gauzatzen.
ts	> tx	<i>isats &gt; ixatx, itsusi &gt; itxuxi, hautsi &gt; hautxi,...</i>
tz	> tx	<i>Arrautza &gt; arrautxa, hotz &gt; hotx, motz &gt; motx, utzi &gt; utxi,...</i>
tx	= tx	Ez da aldaketa fonetikorik gauzatzen.

**2. taula.** *Bertze zenbait kontsonanterekin gertatzen diren aldaketa fonetikoak*

(Zubiri, 2002: 20)

<b>Hotsa</b>	<b>Aldaketa fonetikoa</b>	<b>Adibideak</b>
d	> dd	<i>adarra &gt; addarra, ederra &gt; edderra,...</i>
t	> tt	<i>kontua &gt; konttua, bat &gt; batt,...</i>
r	= ll (dd)	<i>beroa &gt; belloa, burua &gt; bullua,...</i>
rr	> ll (dd)	<i>ekarri &gt; ekalli, etorri &gt; etolli,...</i>
l	> ll	<i>polita &gt; pollita, pala &gt; palla,...</i>

Bigarren taulako bustidurak ez dira lehenbizikoan bezain era sistematikoan bustitzen.

Izen berezien kasuan, gauza berbera aplikatzen da. Hona hemen Zubirik (1995: 180) aurkezturiko adibide batzuk:

- (7) a. *Donostia > Donoxtia*  
 b. *Aitziber > Aitxiber*  
 c. *Zarautz > Xarautx*

- *Maila morfosintaktikoa*

EHH-ren berezko ezaugarri morfosintaktikoen barnean, bost ezaugarri nagusitzen dira.

---

Hasteko, aditz laguntzailea ezabatzeko joera handia dago. Euskararen jabekuntza prozesuan aditz laguntzailearen ikasketak arazoak sortzen dizkie haurrei, nahiko izaera konplexua daukalako (Ezeizabarrena, 1996). Hori dela eta, haurrari ulermen maila erraztearren edo, indar handiena hitzen edota aditzen arlo semantikoan ezartzen da, “bigarren mailako” faktoreak –aditz laguntzailearen pertsona eta denbora marka– alde batera utziz. Hala, aditzak daraman aspektua mantendu egiten da. Zubirik (2002: 20) emandako adibide hauetan arras argi ikus daiteke:

- (8) a.- *nik ekarri eta zuk eman.*  
b.- *etorri, nik (zuri) emango yogur.*  
c.- *zeinek abesten zuri?*  
d.- *zer garbitu zuk?*

Bigarrenik, erran behar da EHH-n erabiltzen diren zenbait hitz artikulurik gabe erraten direla, beraz, ez direla izen arruntak bezala deklinatzen. Aitzitik, izen berezien jokabidea hartzen dute.

- (9) a. *Non da pitxitxi? (\*Non da pitxitxia?)*  
b. *Hartu brun-brun (\*Hartu brun-bruna)*

Hala ere, badira batzuetan mugatzailearik gabe agertzen direnak eta bertze batzuetan, berriz, inguru berdintsuetan, mugatzailearekin datozenak, (cf. 10a), (Zubiri, 1995: 184). Baina badira ia gehienetan mugatzailearekin agertzen zaizkigunak ere (cf. 10b). Hori gertatzearen arrazoia ez dago batere argi, nahasketa hori EHH-ren izaeratik eta helduon hizkuntzaren izaeratik letorkeela erran daiteke, ez baita hizkuntzako eta sistema guztietara zabaldu.

- (10) a. *mu(a), koko(a), tete(a)/ttette(a).*  
b. *ninia/ñiñia, pipia, pupua, totoa, tutua, txitxia.*

Hirugarrenik, azpimarratu nahi diren elementu edo sintagmak esaldiaren hasiera eta amaieran errepikatzeke joera dago (cf. 11). Badirudi haurrak eduki semantikoa eta galdetzen zaiona ongi uler dezan egiten dela. Baliabide hau, batez ere, galde-erantzun sistemaren barnean erabiltzen da. Hona hemen Zubirik (1995: 189) agerturiko zenbait adibide:

- (11) a. *Ama non da ama?*  
b. *Amona etorri da amona?*  
c. *Pitxitxiri eman al diozu ñañan pitxitxiri?*

Laugarrenik, erran, EHH-n ekintzak adierazteko erabiltzen diren elementuak (cf. 12) ez direla egiazko aditzak, sasi-aditzak baizik. Bi arrazoi nagusi daude errandakoa frogatzeko: alde batetik, aspektu markarik onartzen ez dutelako (cf § 3. taula) eta beraz, forma bakarrekoak dira beti. Bertzetik, horrelako partikulek ez dute aditz-laguntzailerik onartzen eta beraz, (13)-ko esaldi hauek desegokitzat hartu behar dira (Zubiri, 2002: 26).

(12) *aupa > altxatu; punba > erori; taka-taka > ibili;*

- (13) a.- \* *Ni ttaka naiz*  
 b.- \* *Nik punba dut*  
 c.- \* *Nik kanka dutt*  
 d.- \* *Ni aupa naiz*

### 3. taula. Aditzen eta sasi-aditzen jokaera aspektu markak erantsita

(Zubiri, 2002: 26)

Aspektu marka	Aditz arrunta	Sasi-aditza
∅	<i>begira</i>	<i>Taka "eseri"</i>
<i>-tu</i>	<i>begira-tu</i>	* <i>taka-tu</i>
<i>-t(z)en</i>	<i>begira-tzen</i>	* <i>taka-tzen</i>
<i>-tuko</i>	<i>begira-tuko</i>	* <i>taka-tuko</i>

Horrela, sasi-aditz horiek aditz arruntek adierazten dituzten pertsona, zenbatasuna, tenpus-a, e.a. agertzeko bertze baliabide batzuetara jotzen dute, "makulu" aditzetara hain zuzen. Gehientsuenetan, egin aditza da funtzio hori betetzen duena (cf.14a), baina badira funtzio hori betetzeko erabiltzen diren bertze aditz batzuk ere, hala nola, "eman" eta "bota" (cf. 14b eta c).

- (14) a.- *lolo egin, taka egin, ñañan egin, aupa egin, tas-tas egin...*  
 b.- *tas-tas eman, pa eman (musu eman), ñañan eman.*  
 c.- *pa bota, punba bota.*

Aipatzeko den bertze ezaugarri bat aditzaren hirugarren pertsonaren erabilera da, lehenengoa edo bigarrena erabili beharrean. Bere adibideetan garbi ikusten den moduan, arras ohikoa omen da *aitona apapa doa* erratea *ni apapa noa* erran beharrean. Ezaugarri hori, buruturiko ikerketa enpirikoan ere, modu argian ikusiko dugu.

---

Azkenik, EHH-n erabiltzen diren hitz gehienak, bizidunen kasua alde batera utziz, absolutibo/ergatibo singularrean erraten dira. EHH-ko hitz gehienak absolutibo eta singularrean erabiltzen dira, hala nola, *mama* “ura”, *pupua* “mina”, *kaka* “zikina, txarra”. Kasu gehienetan pluralaren formak saihestu egiten dira, hau da, lurrean dauden gozoki multzo bat txarra dagoela errateko, helduak *hori kaka da* erranen du eta ez *horiek kakak dira*.

Hala ere, badira zenbait hitz absolutibo zein ergatiboan erabili ohi direnak. Horren adibide garbiena sasi-aditzak dira, izan ere, ekintza adierazten duen subjektua, kasuari erreparatuz, absolutiboan edo ergatiboan ager baitaiteke (cf. 15). Ikus daitekeen moduan, sasi-aditzek malgutasun handia ematen diete erabiltzaileei kasu-marka hartzeko garaian, egoera jakinen arabera, bat edo bertze erabiltzeko aukera baitago. Aipatzekoa da, erregulartasun falta horrek ez diola inolako kalterik egiten umeari, adin honetako hurrek ez baitiote halako kasurik egiten hizkuntzaren alderdi formalari, eduki semantikoari baizik. Hona Zubiriren (2002: 27) adibide batzuk:

(15) a- *Ttaka zuk ere?*

b.- *Egoitz, ttaka hemen.*

c.- *Arre-arrek punpa egin du, bai punpa egin du!*

d.- *Arre-arre punpa eta Egoitzek ere bai, punpa egin du!*

- *Maila lexikoa*

EHH-k hiztegi propioa dauka. Historian zehar badira EHH-ko hiztegia jasotzen saiatu diren autore anitz. Horien artean aspaldi Azkuek (1891: 24-25) jasotako bilduma daukagu; denboran hurbilago M. Lekuonak (1978: 569-573) bildutako hiztegia edota Aurkerena *et al*-ek (1999) eman dituzten hitz zerrendak. Bertzalde, jakina da azken urte hauetan herri aldizkarietan, tokian tokiko aldaerak jasoz, zerrenda edo bilduma batzuk egin izan direla (cf. Azpirotz eta Lizarraga, 2010; EREGI, 2006).

Berezko hiztegi horren barnean dauden hitzek bi ezaugarri nagusi dituzte; batetik, hitz anitzek izaera onomatopeikoa dute (cf. 16a). Bertze batzuk, berriz, EHH-ko bere-berezkoak diren hitzak dira (cf. 16b); bertzetik, hitzak sortzeko modua arras sinplea da; zenbaitetan, silaba berbera errepikatuz osatzen dira (cf. 16c), bertze batzuetan, berriz, arras antzekoak diren silabak hartzen dira eraketarako (cf. 16d) (EREGI, 2006).

---

(16) a.- *mu, miau, be-be, brun-brun.*

b.- *kaka > zikina; nini > haur; mama > ura; papa > ogia; punpa > erori.*

c.- *tas-tas > jo; txitxi > haragia.*

d.- *ñanan > jatekoa; plisti-plasta > bainatu; txista > indizioa paratu.*

Aipaturiko guztia ikusi eta gero, garbi dago EHH-n ezaugarriek bere horretan dirautela, hots, ez baita horrelako diferentziarik Lekuonak (1921) eta Zubirik (1995; 2002) zehazten dituzten ezaugarrien artean. Nabaria da, gaur egun, filologian aurrerapenak egin direla eta, beraz, hizkera bat sakonago azter daitekeela, maila ezberdinak kontuan hartuz. Baztanen bildutako BHH-ren ezaugarrien datuekin, aipaturiko EHH-ren ezaugarri guzti horiek aztertuko ditugu.

## **2.2. Hizkera ez berbala.**

Heldu eta haurraren arteko interakzio horretan gertatzen diren jokabideak haurraren hizkuntza jabekuntzarako garrantzitsuak direla ikusiko dugu atal honetan. Horretarako Owens-ek (2003: 178-204) gaiaren inguruan hitz egindakoa hartuko dugu oinarri, berak sailkaturiko beharrezkoak diren helduen jarrera horiez mintzatuko gara. Orain arte, gehienbat, hizkera berbalaren inguruan hitz egin dugu, baina ikusiko dugun moduan, HH-k ere badu hizkera ez berbalarendako lekua. Baztanen kasuan, bai hizkera berbala eta bai ez-berbala erabiltzen ote diren ikusteko aukera izanen dugu aurrerago (cf. §4).

### *2.2.1. Keinuak*

Helduek hurrekin hitzen bidez komunikatzeaz gain, zenbait keinu erabili ohi dituzte, batez ere umearen bizitzako lehenengo urtean. Aipatzekoa da, kasu horretan, zehazten diren ezaugarri eta datuak amari dagozkiola. Baina horrek ez du erran nahi, aita diren gizonek keinuak erabiliko ez dituztenik, hortaz heldu hitza erabiliko dugu horiei erreferentzia egiteko. Hona hemen amek erabili ohi dituzten zenbait keinu:

#### *2.2.1.1. Begirada*

Orokorrean pertsona bati zuzendutako begirada segundo gutxi batzuetakoa izan ohi da, hori luzatzeak bertzelako sentimendu sakonagoak eragin baititzake. Umeekin alderantziz gertatzen da. Owens-ek (2003: 178) egindakoa ikerketan

---

erakutsi zuenez, hurrei zuzendutako helduen begiradak 30 segundo baino luzeagoak izaten omen dira. Jolas egoeretan, denbora hori luzatu egiten da.

Helduek, bertze alde batetik, umeek egiten dituzten begirada guztiak kontrolatzeko joera dute, horrela, haurrarekin zeri buruz hitz egin jakin baitezakete. Gehienetan haurra begira dagoen objektu, ekintza edo lekua begirada baten bidez seinalatzen dute. Modu honetan, umeek ikasten dute seinalatzen den tokira begiratu behar dutela.

Helduaren begiradan gertatzen diren bariazioak edo aldaketak, umeen atentzioa bereganatzeko helburuarekin burutzen dira

#### *2.2.1.2. Aurpegiko espresioak*

Helduek HH osatzeko erabiltzen dituzten espresioak dira. Horien erabileraren funtzioak anitzak dira eta elkarrizketa baten hasiera eta bukaera markatzeko erabil daitezke. Gehienetan zerbaiti hasiera emateko, zerbait seinalatzeko edo umea zerbait egitera bultzatzeko erabiltzen direnen artean honakoak aurki ditzakegu: aho eta begiak irekitzea, bekainak goratzea, burua alde baterantz makurtzea. Guzti horiek *ooh* edo *aaah* bezalako hotsekin konbinatu ohi dira.

Badira espresio baten bidez denbora luzez adieraz daitezkeen egoerak ere, hala nola, irri baten bidez inolako arazorik gabe gauzatzen ari den situazio bat adieraz daiteke. Alderantziz, kezka egoera bat dagoela adierazteko honako espresioak erabili ohi dira: begia ireki-irekiak mantentzea, bekainak zuzen edota ahoa erdi irekia.

Elkarrizketa edo ekintzaren bati bukaera eman nahi zaionean, gehienetan bekainak jaitsi eta elkartu ohi dira, begiak eta ahoa erdi ixten dira. Espresio hauekin batera, hiztunak bere hizkeraren bolumen eta tonua jaisten ditu.

Umeak helduarekin hitz egin nahi ez izatea ere espresio jakin baten eragina izan daiteke, izan ere, espresiorik gabeko aurpegi batek ez baitio umeari ezer transmititzen eta beraz, ez du umea erakartzen.

Helduek era naturalean erabiltzen dituzten espresio horiek umearen atentzioa erakartzea ahalbidetzen dute, baita helarazi nahi zaizkion mezuak hobe ulertzea ere.



---

### 2.2.1.3. *Buruaren mugimenduak*

Helduek umeei zuzentzen zaizkien mezuekin burua mugitzeko joera izan ohi dute, hala nola, astintzekoa, makurtzekoa edo alderatzekoa. Gehienetan, harridura adierazteko erabiltzen dira.

### 2.2.1.4. *Hurbiltasuna*

Hurbiltasunak norberaren espazio intrapertsonalaren erabilera komunikatiboari egiten dio erreferentzia, hau da, bakoitzak daukagun espazio pertsonal eta intimoari. Helduen artean espazio pertsonal hori egoera arras intimoetan elkartrukutzen dugu, baina umeekin hitz egitean muga hori ez da existitzen, umeak espazio pertsonal hori izango ez balu bezala jokutzen dugu, hurbiltasun handiarekin elkarreraginez.

Beraz, umearen eta helduaren arteko elkarrekintza horrek umearen hizkuntza jabekuntza prozesuan garrantzia dauka, helburu konkretu batzuekin erabiltzen delako (Owens, 2003: 179). Azken urteetako ikerketek erakusten dutenaren arabera (Thiessen, Hill, Jenny eta Saffran, 2005), HH-k haurren hizkuntza jabekuntza prozesua erraztu eta azkartu egiten du. Hala eta guztiz ere, badira bertzelakorik erakusten duten zenbait ikerketa (Schieffelin eta Ochs, 1987). Horien arabera, jabekuntza prozesu horretan ez dago inolako onura edo atzerapenik. HH-ren bidez hitz egin eta hitz egin ez dietenen haurren prozesuaren garapenean ez omen da inolako diferentziarik ageri. Gainera, umeek azkarrago ikasten omen dute helduen hizkera, beraien egunerokotasunean hizkera horretan hitz egiten ari diren helduak entzuten badituzte, beraiek helduekin daukaten interakzioaren bidez baino.

## 2.3. **Haur hizkera eta hezkuntza**

Goragoko ataletan ikusi moduan (cf. §2.1. eta §2.2.), EHH hizkera arras aberatsa da hizkera berbalari dagozkion hiru maila nagusitan – fonologia, morfologia eta lexikoa –, baita hizkera ez berbalean ere. Hori dela eta, Zubirik (1995: 201) aski ongi defendatzen duen moduan, aintzakotzat hartu beharreko zerbait da, bazterrean utzi ezin dugun zerbait. HH-ren erabilera etxegiroan eta etxekoen inguruan kokatu izan da gehienetan (Zubiri, 2002: 29). Baina erabilpen hori bertze esparru batzuetara ere zabaltzerik ba ote dago?

---

Zenbait kasutan etxebizitzaren maileguen kostu altuagatik, beste hainbatetan garapen profesionala ez eteteagatik edo beste makina bat arrazoigatik, gurasoen lanera joan behar izaten dute hilabete gutxiko haurra izan arren. Kasu gehienetan, gurasoen laneratze horrek dakar haurra gero eta lehenago eskolara eramatea (Larrea, 2007: 17). Haurrak adin goiztiarretan haur eskolara eramatea azken urteotan hedatu den fenomeno da. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak (2011: 80) aurkezturiko eskolatze tasen arabera datuen arabera, 1999-2000tik eta 2007-08ra eskolatze tasek gora egin dute Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari dagokionean, 4.8 puntuko portzentajearekin.

Beraz, ume horiek beraien haurtzaroaren zati handi bat eskolan igarotzen badute, etxe girotik lehenago aldentzeko dira. Gure gaiari helduz, HH erabiltzen duten gurasoen umeen kasuan, hizkera horretatik lehenago aldentzea egokituko zaiela pentsatzekoa da.

Gaur egun arras ohikoak diren horrelako egoerek HHa eskoletan erabiltzea komeni den edo ez hausnartzeko bidea irekitzen digute. Hortaz, gure etorkizunera begira, buruturiko lan honetatik ateratakoa Haur Hezkuntza arloan zer neurritan aplikatu dezakegun aztertuko dugu.

Horretarako, lehenik eta behin, Haur Hezkuntzako Curriculumean hizkuntza arloari dagokionez idatzita dagoena behatuko dugu, eta ondoren, irakaslearen jokaeraz mintzatuko gara, horren gainean ezer gutxi idatzita badago ere.

### *2.3.1. Haur Hezkuntzako Curriculumarekiko lotura*

Haur Hezkuntza hezkuntza sistemaren lehen maila da, haurraren jaiotzetik sei urtera bitarteko aroak osatzen duena eta bi ziklotan egituratzen da: lehena 0 eta 3 urte bitartekoa, eta bigarrena, berriz, 3tik 6ra bitartekoa.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak Haur Hezkuntza etapa esparru berri moduan onartu zuenetik, nortasun berezia zuen etapatzat definitu zuenetik alegia, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren esku geratu zen abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuan aurkezturikoa egokitu eta moldatzea (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2007: 2). Horretatik martxoaren 19an 23/2007 Foru Dekretua onartu egin zen, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena. Hala ere, lehenengo zikloarentzat ez zen inolako edukirik zehaztu. Hori dela eta, gaur egun, Haur Eskola bakoitzaren esku dago bigarren zikloko eduki horiek hartu eta zein modutan landuko dituzten zehaztea.

---

Gure gaiari eutsiz, bertan planteatzen diren hiru arloetatik azkena da interesatzen zaiguna. Arlo honen hasieran baieztatzen den moduan, ahozko hizkuntzak aparteko garrantzia du etapa honetan, ikasi, jokabidea erregulatu eta bizipenak, sentimenduak, ideiak nahiz emozioak adierazteko baliabide nagusia baita. (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2007: 32). Gehienbat, haurrek hitz egiten ikasi beharreko hizkuntza horretaz hitz egiten digu, irakasleen hizkera motari buruz aipamen bakarra eginez. Aipuak adierazten duenaren arabera, eskola hizkuntza eredu konplexuekin eta hizkuntza formal eta jasoarekin kontaktua izateko toki bakarra da. Baina aldi berean, etxetik ama-hizkuntzarekin datozen ikasle horiek ezin ditugu ahaztu. (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2007: 34). Egokitasun hori aztertu beharreko zerbait da batentzat egokia dena, agian bertze batentzat desegokia izan baitaiteke. Hala ere, pentsatzekoa da eskola hizkuntza eredu horretaz hitz egitean, eredu orokorraz mintzatu nahi dutela eta ez bakoitzak etxetik dakarren hizkera motaz. Lehenagokora bueltatuz (cf. *supra*), arazoa umea gero eta lehenago eskolatzean dago, izan ere, umea etxean hizkera mota jakin bat entzuten ari den bitartean, hezkuntza sistema etxe giroko hizkeratik at dagoen bertze hizkera mota bat bultzatzen ari da.

Lan honetan azterturikoa Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari legokioke, baina bertako edukiak bigarren ziklokoak bezalakoak direla suposatzen bada, etxeko hizkuntzaren eta eskolako hizkuntzaren adaptazio baten faltan geratu gara. Hortxe dago gakoa, noizbait lehenengo ziklorako edukirik zehazten bada, HH-ren erabileraz hitz egitea beharrezkoa litzateke, adin horretako zenbait umeren kasuetan arras presente egon daiteke-eta HH. Horren erabilera irakasle bakoitzaren arabera izanen da, helduen artean ere ematen den bezala (cf. §1.1), baina etxetik hizkera hau entzuteko ohiturarekin datozenei ezin zaie bat-batean hizkera mota hori ezabatu. Etxeberriak (2003: 123) garbi aipatzen duen moduan, hizkuntza jarduera soziala da, eta beraz, haurrak komunikatzeko dituen lehen esperientziak, familia girokoak gehienetan, arras garrantzitsuak izaten dira.

### *2.3.2. Irakaslearen jokaera*

Eskolaren kalitatea ulertzeko, gelako giroaz gain, kontuan hartu behar da haurrekin batera protagonista den irakaslearen lana (Larrea, 2007: 162). HH-ren erabileraren adin tarteari erreparatuz, lan honetarako, 0-3urte bitarteko haurrekiko irakaslearen komunikazioa nolakoa den jakin beharrean gaude, gero gure ikerketan HH-ren erabileran eskolak duten paperaz hitz eginen baitugu. Gaiaren inguruan egin diren ikerketak behatuz ezer gutxi aurkitu izan dugu.

---

Behatutakotik atera dezakegun ideietako bat da ikertzaile batzuek irakasleen hitz egiteko eta azalpenak emateko era sentikortasunarekin lotu izan dutela . Sentiberatasun horrek haurraren segurtasunean ere eragin dezake (Larrea, 2007: 165). Ildo horretatik, ulergarria da sentikortasuna eta hitz egiteko eta azalpenak emateko era hartzea haurraren segurtasunerako baldintzatzat (*ibid.*).

Hitz egiteko eta azalpenak emateko erari erreparatuz, irakasleari historikoki rol bat esleitu izan zaio (Larrea, 2007: 166). Arestian aipatu moduan (cf. *supra*) irakaslearen hizkuntzaren erabilera egokia izan behar da, eragin zuzena baitauka haurraren hizkuntzaren hastapenean. Baina egokia den horren erreferentzia puntua zein ote den zehaztu beharko litzateke, haurren adina kontuan harturik, batentzat helduen hizkuntza egokia izan daitekeen moduan, bertze batentzat HH hizkera izan baitaiteke. Azken finean, Haur Hizkera gehienbat afera afektiboagatik erabiltzen dela kontuan hartuz, 0-2 urte bitarteko haurrekin lortu beharreko helburu komunikatibo eta afektiboak, HH-ren erabileraren bidez erdiesteia izan daiteke aukeretako bat. Ideia hau ikerketa enpirikoari dagokion atalean hausnartuko dugu, Baztango jendeak zer iritzi ote duen jakin nahian.

---

### 3. MATERIALA ETA METODOAK

Ikerketa burutzeko erabili den materiala sinplea izan da: bideo grabagailu bat eta audio grabagailu bat.

Erabilitako metodologia kualitatiboa izan da, Baztango jendearekin burutu da subjektuen eta ikerketa burutu duenaren parte hartze aktiboa sustatuz. Gorago aipatu moduan (cf. §1.2.), ikerketak bi zati izan ditu; horietako bat grabaketek osatu dutena izan da, eta bigarrena, berriz, elkarrizketek.

Grabaketen zatia 1 eta 2 hipotesiak (cf. §1.2.) baieztatu edo ezeztatzeko helburuarekin burutuak izan dira, aldi berean, esanguratsua izan daitekeen informazio guztia bilduz. Lau grabaketak bi egun ezberdinetan egin dira. Lehenengo egunean, E80 eta E21-k parte hartu dute, 2:02 urteko mutikoarekin batera. Bigarren egunean, berriz, G52 eta M8-ak izan dira grabatuak, 1:08 urteko neskekin (cf §1.2).

Bi grabaketa neska txikiaren etxean egin ditugu eta bertze biak, berriz, mutikoaren amaxiren etxean. Azken bi hauek helduekin konfiantza eta hurbiltasun handiagoa zuten pertsonen bidez egin dira, geure presentziak anitz urduritzen baitzituen. Dena den, kasu guztietan umearen ohiko egoerak grabatu ditugu, heldua berarekin elkarreraginean zegoen bitartean eta gure lana egoerak grabatu eta behatzera mugatu da. Egoerak arras modu librean planteatu ditugu, beraien interakzioa bertzerik ez baitugu grabatu, beraiek jolasean edo hitz egiten ari ziren bitartean. Hala ere, hasiera batean zenbait egoera aurkeztu genizkien subjektuei elkarrizketa gidatzeko asmoz, bi egoera hain zuzen:

- a) Haurrari gustatzen zaizkion jostailuekin jolastea.
- b) Animalia ezberdinen figurekin jolastu eta hauen inguruan hitz egitea.

Egoera horiek, gure abiapuntu bertzerik ez dira izan. Grabaketa aurrera joan ahala, heldua erosoago sentitu eta egoerak bere baitan aurrera egin du.

Elkarrizketen zatia 3 eta 4 hipotesiak (cf. §1.2) egiaztatzeko burutuak izan dira eta egoeren grabazioetan egin zen moduan, esanguratsua iruditzen zitzaigun informazioa biltzeko. Sei elkarrizketak sei egun ezberdinetan burutu dira. Elkarrizketak egiteak izan dezakeen oztopoetako bat Labov-ek (1972)

---

aurkezten digun “behatzailearen paradoxa” hori da, hau da, nola lortu giro lasai eta atsegina, elkarrizketatua eroso senti dadin eta espontaneoki parte har dezan, gure presentziak haren jokaera eta hizkera baldintza ez dezan. Ideia hori oinarri izanik, elkarrizketa bakoitza parte hartzaileen etxean burutu da, elkarrizketatuak (cf. §1.2) erosoan sentitzen ziren lekuan. Kasu guztietan, egongelan edo sukaldean egin dira.

Elkarrizketa bideratzeko BHH-ren erabilerarekin lotutako zenbait galdera planteatu zitzaizkien, beti ere, elkarrizketa gidatzeko bakarrik erabiliak izan zirenak. Lehenengo minutuak konfiantza egoera sortzeko erabili genituen, elkarrizketatuarekin gaiarekin bat ez zetozen zenbait gauzez hitz eginez. Ondoren, gaiari buruz hitz egiteari ekin genion. Galderak guk eginak izan baziren ere, elkarrizketatuek nahi zuten moduan hitz egiteko eta adierazteko aukera izan zuten, nahiko modu irekian utzi baitzitzaaien hitz egiten. Hala, elkarrizketaren protagonista elkarrizketatua izan da eta gurea entzule eta behatzaile izatera mugatu da. Kasu honetan, elkarrizketa guztiak guk egiten genituen.

---

## 4. EMAITZAK ETA HORIEN EZTABAIDA

Gorago aipatu bezala (cf. §1.2.) nire abiapuntua hasieran planteaturiko hipotesi horiek baieztatzea edo ezeztatzea izan da, beti ere, horietatik abiatuta informazio gehiago plazaratzeko asmoz. Hurrengo lerroetan, grabazio eta elkarrizketetatik bildutako informazioa aztertuko dugu, ikerketa burutzerakoan banaturiko bi zatietan oinarrituz (cf. §3.).

### 4.1. Lehenengo zatia: grabaketak.

Arestian aipatu bezala (cf. §3.), grabaketen bidez 1 eta 2 hipotesiak baieztatu edo ezeztatu ditugu.

Lehenik eta behin, Baztango haur hizkeraren erabileraz hitz egin nahiko nuke, modu orokorrean. Grabazioen bidez ikusi dugunaren arabera, erabilpenaren arrazoi nagusia ez dago pertsona bakoitzaren adinaren esku, bakoitzaren ohituren esku baizik. Zubirik (2002: 24) aski ongi adierazten duen moduan (cf. §1.1.2.) hiztunak askatasun handia dauka hizkera hori noiz erabili nahi duen erabakitzeke eta hori arras nabarmen ikusi izan dut egindako grabazioetan. M8-ren kasuan izan ezik, bertze hiruetan helduak erabakitzen baitzuen haurraren noiz BBH-ren bidez zuzendu eta noiz ez. Horrela, arras nabarmen entzun zitekeen momentu batean behiari *mua* erratea eta bertze batean, berriz, *behia*. Kasu horietan, norberaren ohitura kontuaz aparte, bertze helbururen bat ere egon daiteke, baina hori aurrerago aipatuko dugu.

Lau subjektuen artean, E78 izan da BHH-ren bidez haurrari gutxien zuzendu zaiona eta M8, berriz, gehien. Noski, honen azpian mila arrazoi egon daitezke; baliteke, hasieran aipatu bezala ohitura kontua izatea eta kasualitatez helduena den horrek BHH erabiltzeko ohitura handirik ez izatea; posiblea da, ere bai, kamararen presentziak bere hizkeran naturaltasuna baldintzatu izana. Zubirik (2002: 23) aipatzen duen moduan (cf. §1.1.), HH erabiltzen dutenen artean gurasoak izaten omen dira lehendabizikoak HH alde batera uzten; aiton-amonak, berriz, beranduen uzten dutenak izaten omen dira. Gure kasuan, bai G52, E21 eta M8-k oraindik ere BHH dezente erabiltzeko joera erakusten dute, E78-k baino, amatxi denak baino alegia. Beraien erranetan, etxeko ohituragatik

---

omen da, E78k erranaren arabera, umeei zuzentzean helduen hiztegiari agertzen ez diren zenbait hitz erabiltzeko ohitura omen dauka, baina betitiek horiek bakarrik erabiltzera mugatu omen da.

Gauzak horrela, zaila da hasieran planteaturiko 1 hipotesia (cf. §1.2.) guztiz baieztatu edo ezeztatu ahal izatea; horretarako, pertsona gehiago grabatu beharko bailirateke. Hala ere, bertze ikerketa baterako ideia gisa utziko dugu.

Bertzalde, bai 2:02 mutikoaren eta 1:08ko nesken adinak BHH-ren erabilerari izandako eragina arras nabaria izan da, helduenen kasuan argi ikusi ahal izan baita Zubirik (2002: 23) aipatzen zuen irakatsi nahi, helburu didaktiko hori, alegia (cf. §1.1.2.). E78, G52 eta E21 subjektuen kasuetan, adibidez (cf. 17), garbi ikusi da erabiltzen duen BHH-ko hitz bakoitzak zer erran nahi duen erakutsi nahi zaiola haurrari.

(17) a.- *Mua? Bai, bai hala da bai, behia da, behia. (G52)*

b.- *Koko nahi duzu? Txokolate? (E21)*

Horetaz gain, aipatzekoa da, aztertutako egoeretan M8 subjektuak BHH anitzez ere gehiago erabiltzen duela helduek baino. Beraz, haurrek ere HH erabiltzeko gai izan daitezkeela nahiko baieztatua gelditu da (cf. §1.1.), baina kontua da, haurrek zer adinetik aurrera barneratzen ote dute zehaztea arras zaila dela (cf. §1.1.). Kasu horretan ikusi dugunaren arabera, erran daiteke 8 urteko mutil batek ederki barneratuak edo ikasiak dauzkala BHH-ren ezaugarriak eta gainera modu egokian erabiltzeko gai dela, izan ere, baitakigu ume horrek helduen hizkeran hitz egiteko inolako arazorik ez daukala, hots, bi hizkerak ongi bereizten dituela.

BHH-ren ezaugarri guzti-guztiak erabiltzearen arrazoi nagusia bera baino txikiagoa den umeak uler diezaion erabiltzen duela erratera ausartuko gara. Bera bi urteko umea baino handiagoa denez, bere aurrean heldu baten moduan jokatu nahi du eta hortaz, hizkera hori erabiltzeko joera erakusten du, umeak hobeto uler diezaion. Hala ere, arrazoi horretaz gain, bere familian horrela hitz egiteko ohitura dagoela bistakoa da, berari txikitari horrela egin eta barneratu izana, alegia.

Orokorrean, lau generazioetako pertsonak BHH erabiltzen dutela begibistakoa da, baina neurri ezberdinetan. Neurri hori pixka bat aztertzeko eta bide batez, 2. hipotesian azaldutako ideia (cf. §1.2) aztertzeko, euskarazko haur hizkeraren ezaugarri horiek zein mailatan diren unibertsalak edo ez ikusteko hain zuzen.



---

Horretarako Lekuonak (1921) eta Zubirik (1995; 2002) planteaturiko ezaugarriak harturiko dira kontuan, baita BHH-n erabiltzen diren hitzen zerrenda ez sistematiko hori ere (cf. §2.1.2.). Horrela, bada, ezaugarri bakoitza norberak zer neurritan erabiltzen ote duten aztertuko dugu hurrengo lerroetan, lau subjektuen arteko konparaketa eginez.

#### 4.1.1. *Maila fonetikoa*

Fonema txistukariak dira gehien erabili dituzten subjektuak G52 eta M8 izan dira. E78 subjektuak baten bat erabiltzen du noizbehinka, baina nabari da ez daukala ohitura handirik eta E21-ek, berriz, ez du behin ere erabiltzen. Egia da, azken subjektu horrek *xerrie* edo *bildotxa* bezalako hitzen bat aipatu duela, txistukariak diren hotsak sabailkatuz, baina animaliekin lotutako hitzekin bertzerik ez du egin. Hortaz, ezin erran daiteke ezaugarri hori erabiltzeko joera handirik duenik.

Txistukariak diren fonemak maiz sabailkatu dituzten subjektuetan zentra gaitzen, G52 eta M8-ren artean, izan ere, horien artean baitira aipatzekoak diren zenbait afera. Lehenik eta behin erran, G52-k noizbehinka erabiltzen dituela sabailkariak eta M8-k, berriz, beti.

G52 subjektuaren kasuan ikus daitekeen bezala, arestian emandako adibideren batean (cf. 1.) gertatu bezala, kasu honetan ere suertatu da esaldi baten barnean sabailkatu daitezkeen kontsonante bat baino gehiago egonik, batzuk bustitzea eta bertze batzuk ez. Hona hemen errandakoa erakusten duten G52ren zenbait adibide:

- (18) a.- *Sartu, xartu hoiek denak karrora*  
b.- *Aitu, aitu xolaxian amatxokin ta orai aitu solasian amatxikin*  
c.- *Hara, gan da exkapo! Bai, gan da eskapo!*  
d.- *Aiko gara dantxan? Tiri-tiri(...) aiko gara dantzan?*

Garbi dago, txistukariak erabiltzearena helduaren esku dagoela (cf. §1.1.2.), norberaren askatasun hori nabarmena da, ezaugarri hau erabiltzearen azpian hitzunaren borondatea eta intentzioa baitago. Hala ere, aipatzekoa da, G52 hitzun horrek txistukariak palatalizatu egiten dituela umearengana modu goxoan hurbiltzean denean, gauzak agintzerako orduan, berriz, ez ditu aldaketa fonetiko horiek aplikatzen. Hona erran nahi dudana garbi erakusten duen G52k erraneko bi esaldi:

- 
- (19) a.- *Zato hunet! Etzaitela eskapo gan. Ez, hoi ez, hoi ez!* (modu negatiboan erraten dio umeari, haserre moduan)  
b.- *Xato, xato hunet! Ooo...xer paxtu de?* (Haurrak mina hartu du eta negarrez ari da)

Bertzalde, erran beharra dago, kontsonanteen arloan hain ohikoak ez diren aldaketak (cf. 2. taula) M8 urteko mutilak bertzerik ez dituela erabiltzen. Mutikoak txistukari guztiak bustitzeaz gain, hain erabiliak ez diren bertze horiek ere bustitzen dituela, momenturo gainera. Kasu horretan, ez dugu atzeman, G52-ren kasuan gertatzen zen bezala, esaldi batean txistukari batzuk busti eta bertze batzuk busti gabe uzteko adibiderik. M8-k bai umearengana zuzentzeko, bai objektuak adierazteko, bai modu negatiboan gauzak errateko ere, erabiltzen dituen hitz guztietako fonemak bustitzen ditu. Hona hemen zenbait adibide:

- (20) a.- *Nolla ixena lu?Xe ongi!*  
b.- *Baino xe ongi txuttetxen dduxun! Xe ongi!*  
c.- *Beltxe bat, utxi bal ttugu holl!*  
d.- *Ex tta hollat ex?* (Gaizki egin duela erranez)  
e.- *Etta, etta hau xer la?*  
f.- *Xe ekipo dda hau? Barxellona!!*

Kasu honetan, gorago ere aipatu dudan moduan, (cf. §4.2.1.) garbi ikusten da mutiko horri txikia zenean modu horretan hitz egin diotela, eta bere inguruan oraindik ere umeei horrela hitz egiten dietela. Hortaz, hizkera eta hizkeraren ezaugarriak ongi ezagutzen ditu eta erabiltzeko ohitura hartu du.

Laburbilduz, erran daiteke txistukarien palatalizazioak oraindik ere bizirik jarraitzen duela, baina orokorrean, nahiko gutxi erabiltzen da. Gure ustetan, umeei gero eta lehenago helduen hizkuntzan hitz egin nahi zaie, ahalik eta lasterren hizkera hori barnera dezaten. E78 eta E21 subjektuei ezaugarri hori ez erabiltzearen zergatiaz galdetzean, bi subjektuek honako ideia honetan bat egin zuten: umeei txikiak direnean haur hizkeraren bidez hitz egitea ez omen da ona beraien hizkuntzaren jabetzarako, prozesu hori moteldu egiten baitu. Beraiek aitortutakoaren arabera, ez dakite hala izanen ote den edo ez, baina badaezpada ere ez erabiltzea erabaki dute.

---

#### 4.1.2. *Maila morfosintaktikoa*

Maila horri dagozkion lau ezaugarri hartu ditut kontuan (cf. §2.1.2.), laguntzailea ezabatzearena, batetik, zenbait hitz izen berezi bezala deklinatzearena, bertzetik, errepikatzeko joerarena ondotik, eta hirugarren pertsonaren erabilera, azkenik.

Lehenengoari dagokionean, orokorrean ez dago laguntzailea ezabatzeko joerarik, esaldi osoak erraten dira, bai heldu-helduek eta baita gaztetxoek ere. Momenturen batean E78-k esaldiren bat erabiltzen du laguntzailerik gabe, baina grabazio guztian zehar behin bakarrik erabili du. Hauxe da horren adibidea:

(21) a.- *Ta botatzen bagara? Gero? Min hartu (hartuko dugu)!*

b.- *Ez (da) bota bihar!*

Baina orokorrean, ez da horrelako esaldirik errateko joerarik. Hortaz, ezaugarri horri BHH-n garrantzi handirik ematen ez zaiola erranen guke, gure datuetan oinarrituz. Gehienetan horrelako esaldiak aditu ditugu:

(22) a.- *Bildu bar baititugu hokek denak! (G52)*

b.- *Hor baduzu exkue ere! (G52)*

c.- *Gustetzen zaitzu zuri hola ibiltzia? (E78)*

Bigarren ezaugarriari erreparatu, hitz anitz izen berezizat deklinatzeko joera handia dago. Lau subjektuen kasuan ezaugarri hori arras nabaria da, batez ere BHH-ko hitz batzuetan, animaliekin eta motorrekin lotutako hitz horietan hain zuzen. Hala ere, EHH-ko zenbait hitzekin konparatu, salbuespen bat dago: *mu-a* hitza alegia. Gehienetan, animaliekin lotutako hitzak izen bereziak bezala deklinatzen dira (cf. §2.1.1.), *pitxitxi* (ez *pitxitxi-a*), *potxitxo* (ez *potxitxo-a*). Baina badira batzuetan mugatzailerik gabe agertzen direnak eta bertze batzuetan, berriz, mugatzailearekin datozenak (cf. §2.1.1.). Horietako batekin egin dugu topo BHH-n, *mua* hitzarekin, hain zuzen. Leku batzuetan *mua* erraten diote eta bertze batzuetan, berriz, *mu*. Beraz, berriz ere, norberaren ohituren kontua egiten dugu topo, kultura bateko zonalde jakin batzuen ohiturekin hain zuzen ere, jakina baita, Euskal Herriko bertze zenbait zonaldeetan, *mu* erraten dela (cf. §2.1.2, EREGI, 2006).

Hirugarrenik, azpimarratu nahi diren sintagmak esaldiaren hasieran eta bukaeran errepikatzeko joera hori bete betean gertatzen dela ikusi da. Kasu

---

honetan, lehenengoan bezala, grabazio guztietan ikusi den zerbait izan da, eta ez behin gainera, frankotan. Hitzak edo esaldiak errepikatzeko joera, haurrak hitzunik errandakoa ongi ulertzea nahi da edota haurraren arreta bereganatzeko orduan. Hona hemen zenbait adibide:

- (23) a.- *Aber, in amatxikin xolaxtu, in solastu amatxikin, amatxikin* (G52)  
b.- *Eta edan? Zer edaten dute? Edan?* (E21)  
c.- *In bar dugu ttit (...)ttit, hemen ttit!* (M8)  
d.- *Mua non da? Mua?* (E78)  
e.- *Ama, ama non da ama?* (G52)

Hitzak errepikatzeaz aparte, (23a) adibidean bertzelako ezaugarri bat nabaria da, hitz hurrenkerarena edo makulu aditzen erabilerarena hain zuzen (cf. § 2.1.2.). Ikus daitekeen moduan, *solastu* erran behar, *in solastu*, erabiltzen du G52-k.

Laugarren ezaugarria, hots, lehenengo pertsona erabili ordezt hirugarren pertsona erabiltzea (cf. §2.1.2.) egoera guztietan ikusi dugu zerbait da, maiztasun handiaz gainera. Hala bada, honelako esaldiak nahiko usuak izan dira:

- (24) a.- *Amatxii aunitz gustetzen baitzaio loria!! (niri aunitz gustatzen zait)* (E78)  
b.- *Ze ona e? Ze ona man duen ixiarrek! (Ze ona man dizudan)* (E21)  
c.- *Ta bertzia aitorrek! Ta ixiarrek? (Ta bertzea zuk! Ta nik?)* (E21)  
d.- *Ta hau nor da? Hau Aimar! (Hau ni!)* (M8)

Laburbilduz, maila morfosintaktikoa aztertu ondoren, ikus daiteke aspaldi-aspaldidanik planteatu diren ezaugarri guztiak (cf. §2.1.2.) nahiz eta Euskal Herri osoarentzat modu unibertsalean proposatu, bertako zonalde bakoitzaren arabera, salbuespenak egon daitezkeela, kasu honetan ikusi den moduan.

#### 4.1.3. *Maila lexikoa*

Baztanen era ez sistematikoan bildutako BHH-ren hitz zerrenda behatuz, bertako hitz gehien erabiltzen dituen hiztun gazteena da, M8 hain zuzen; benetan harrigarria iruditu zaigu, ez baikenuen inondik ere espero. Harritzekoa da adin horretan horrenbertze hitz jakitea, helduek erabiltzen ez dituzten hitzak gainera. Baina, lehengora bueltatuz, bere inguruko ohitura aipatu beharra daukat berriz ere, bere ingurukoei entzunez ikasia baitu.

---

Lau subjektuek erabiltzen dituzten hitzen artean, badira zenbait denek erraten dituztenak (cf. 23), gainera, arestian zehaztutako erabilera usuko hitzekin bat egiten dute (cf. §2.1.2). Gehienak animalien eta motorrekin lotuak daude eta horiei dagozkien onomatopeikoekin hain zuzen.

#### *4.1.4. Esanguratsuak diren zenbait afera*

Adieraziriko ezaugarri horietaz aparte, badira aipagarriak direla iruditzen zaigun zenbait kontu.

Batetik, M8 subjektuaren kasuan gauzaturiko egoera bat aztertu nahiko genuke. Hauxe zen momentu hartako egoera: 8 urteko umeak tigre bat erakutsi nahi dio 1:08 urteko neskari, baina bere BHH-ko hiztegian “tigre” hitzarentzat ez dagoenez izen berezirik, “tiglia” erabiltzen du. Hala, hitz hori hiztegian ez egonik ere, EHHren lexikoari aldaketa fonetikoak aplikatzeko joera erakusten du. Benetan bitxia, zortzi urte bertzerik ez izanik.

Bertzetik, hiztun guztiek umeekin erabiltzen duten lexikoa arras sinplea da eta tonu eta erritmoari begira ere, denek arras modu argian eta motel hitz egiten diete. Keinuen erabilera, berriz, nahiko murrizta izan da, hiztunak orokorrean, hitz egiteko moduan zentratu baitira. Horren arrazoirik nagusiena, gorago aipatu bezala, haurren adina da (cf. §2.1.1.); izan ere, keinuak gero eta gutxiago erabiltzen dira haurra adinean gora doan heinean. Kasu horietan, bi umeek bi urte inguru dituztenez, keinuen erabilera hori nahiko atzean gelditu da eta indarra ahozko hizkuntzari eman zaio.

## **4.2. Bigarren zatia: elkarrizketak**

Elkarrizketen bidez, 3 eta 4 hipotesiak baieztatu edo ezeztatu ditugu, elkarrizketa librea erabiliz (cf §3.). Horietatik ateratako informazioa puntu desberdinetan azter daiteke:

### *4.2.1. Haur hizkera erabiltzen dutenak eta ez dutenak*

Gure harridurarako, Anizen egindako elkarrizketetatik eskuraturiko informazioa espero genuenaren arras ezberdina izan da. Hirugarren hipotesian (cf §1.2.) aski ongi aipatu bezala, gure ustea herri txikietan BHH gehiago erabiliko zelakoa baitzen, baina kasualitatez Anizen elkarrizketatuak izan diren AH<sup>1</sup>, AH<sup>2</sup> eta AG subjektuen kasuan ez da hala izan. Hiru pertsonetatik bik, AH<sup>1</sup> eta AH<sup>2</sup>-k

---

erabiltzeko ohiturarik ez zeukatela aitortu zuten, eta AG-k, berriz, pixka bat gehiago erabiltzen zuela baina ez anitz. Hori gutxi balitz, pixka bat erabiltzeko ohitura duen hori gazteena da, beraz, gure hasierako hipotesia eta aurkitu dugun errealitatea erabat kontrakoak izan dira.

Gertatutakoaren arrazoi nagusia kasualitate hutsa izan dela erranen genuke, izan ere, pertsona horiek errandakoaren arabera, Anizko jende gehienak BHH erabiltzeko ohitura dauka eta plazan anitzetan entzuten omen dituzte helduak beraien edo beraienak ez diren haurrei modu horretan solasean. Alabaina, aukeraturiko subjektuen familietan ez omen dago horrelako ohiturarik, eta hortaz, beraien ere hasiera-hasieratik umeei helduen hizkeran hitz egiteko ohitura omen dute.

Elizondon elkarrizketaturiko pertsonen kasuan, berriz, alderantzizkoa suertatu da; hiruek haur hizkera erabiltzeko ohitura daukate, salbuespena bertze behin ere. Elizondoko egoera pixka bat ezagututa, jakina da jende anitzek ez daukala modu horretan haurrei hitz egiteko ohiturarik, eta batez ere gazteek, baina pertsona hauen kasuan ez da hala, guk egindako azterketak kontrakoa erakutsi digu. Beraiek ongi aski erraten zuten moduan, beti horrela entzun izan dutelako erabiltzen jarraitzen dute, ohitura moduan, eta gazteenak ere horrelaxe erran zuten. Beraz, bi egoerak aztertuta, bertze behin ere ohitura kontua delako ideia agertzen zaigu (cf. §2.1.2.), hizkera hori erabiltzea pertsona bakoitzaren esku dagoela, alegia.

Aipagarria den bertze afera bat hizkera hori erabiltzen ez dutenekin lotuta dago, erabili ez baina arras ongi ezagutzen baitute. Aurrerago aipatuko dugun moduan, hizkera horrek dituen ezaugarriak zein hiztegia arras ongi ezagutzen dituzte, baina ez dituzte erabiltzen.

Horrela bada, azterketa honen ondotik garbi geratu da hizkera erabiltzea norberaren esku egon daitekeela, beraz, mundu mailan unibertsalak diren erabilera egoera horien artean, salbuespenak egon daitezke, norberaren mailara egokitzen direnak. Unibertsalak izateak ez baitu erran nahi derrigorrezkoak direnik.

#### *4.2.2. Haur hizkeraren ezaugarri nagusienak.*

Aski nabarmen ikusi da elkarrizketaturiko subjektu guztiek ezaugarri horiek ezagutzen dituztela (erabiltzen ez dituztenek ere), baina hauek neurri

---

ezberdinetan erabiltzen dira. Orokorrean, erabiltzaileen artean (AG, EH1, EH2 eta EG) helduenek txistukari gehiago erabiltzeko ohitura agertu dute gazteenek baino, bai Anizkoak edo Elizondokoak izan. Gainera, bi gazteek aitortu egin dute, hitzak sabaikaritzeko ohitura dagoela badakitela, baina horiek bustitzeko ohiturik ez daukatela. Gainontzeko bi subjektuek, berriz, hitzak sabaikatu ohi dituztela baieztatu dute, ez esaldi bateko hitz guztietan, baina zenbait hitz soltetan bai.

Lexiko bereziaren erabilera, aldiz, subjektu guzti-guztiek aipatu duten zerbait izan da. Animalia, motor edota janari/edariekin lotutako hitzei buruz galdetu zaienean, nabarmen ikusi da ezagunenak eta gehien entzuten diren hitzak aipatu dituztela gehienek, hala nola, *pitxitxi*, *mua*, *potxitxo*, *nini*, *fu*, *fu egin*, *koko*...Lekuonak bere zerrendan aipatzen zituenei erreparatzen badiegu (cf. §2.1.2.) gehienak agertu direla ikus daiteke, hots, duela 80 urte erabiltzen ziren hitz horiek, oraindik ere bizirik dira. Hala ere, ezberdintasun bat nabaria da, Lekuonaren zerrendako *koko* hitzak “arrautza” erran nahi baitu, eta BHH-ren kasuan, berriz, “gozokia”.

Hain ezagunak ez diren hitzez galdetzean, subjektuek erabiltzen dituzten hitzen artean zenbait ezberdintasun ikusi dira, baina hain dira difusoak, ezin direla irizpide baten bidez sailkatu, hots, ez baitago erraterik gazteenek edo helduenek erabiltzen dituztela edota Anizekoek bai eta Elizondokoek ez (edo alderantziz). Bai herri eta bai adinaren arabera ere, ezberdintasunak ikusi ditugu; hortaz, elkarrizketa gutxi direnez, sailkapen bat egiteko irizpideak zehaztea nahiko zaila suerta liteke.

Hala ere, arras nabarmenak izan diren bi adibide aipatu nahiko nituzke, “txakurra” eta “ura” hitzari dagozkienak. Lehenengoaren kasuan, Anizen (hiru subjektuek baieztatu bezala) *ttotto* erraten diote txakurrari eta Elizondon, berriz, hiru subjektuek *uau-uau*. Baztango hitzen hitz zerrenda ez sistematizatu horretan *ttotto* agertzen da, baita Lekuonaren zerrendan ere (cf. §2.1.2.). *Uau-uau*, berriz, inguruan egindako bilketen artean (cf. §2.1.2.) izaera onomatopeikoa duten hitzen barnean sartzen dena. Kasu horretan pentsa daiteke, hain aspaldikoa den *ttotto* (cf. §2.1.2.) hitza Elizondon galtzeko bidean egon daitekeela, baina hori ziur zehazteko hitzaren inguruko azterketa sakonago bat egin beharko litzateke.

---

Laburbilduz, bertze behin ere aski garbi ikusi ahal izan dugu, EHH mailan aurreikusitako ezaugarri unibertsal horien artean salbuespenak egon daitezkeela, herri, familia edo pertsonaren arabera.

#### 4.2.3. Helburu afektiboa edo erraztekoa

Lan honen hasieran (cf. §1.1.) aipatzen genituen helburu horiek, teoria hutsa ez direla ikusteko aukera izan dugu gai honen inguruan lorturiko informazioarekin. Helduek haurrei haur hizkeraren bidez hitz egiterako orduan, batez ere, bi helburu konkreturen arabera jokatzeko dute, guk elkarrizketatuen aburuz. AH1, AH2 eta EH2 subjektuek haurrengan gehiago hurbiltzeko intentzioarekin egiten dutela bat egin dute, hau da, haurrengana modu goxoago eta afektiboago batean hurbiltzeko egiten dutela. AG, EH1 eta EG elkarrizketatuek, aldiz, haurrek errazago uler diezaien egiten dutela aitortu dute, haurrei erran nahi dioten hori modu sinplean errateko modua da. Horrekin batera erran, horrela hitz egitea helduen hizkerara ailegatzeko pausua delakoaren ideia aipatzen dutela, helduen hizkera horretarako zubi moduan definitzen dute hain zuzen.

#### 4.2.4. BHH erabiltzeko adin tartea.

HH erabiltzeko adin tartean zaienean, denek eskolan hasi bitarteko denbora horretan erabiltzen dela kontatu digute, aro gramatikalean sartu bitarteko urte horietan hain zuzen (cf. §1.1.). Honela bada, bi urtetik gora helduen hizkerako hitz gehiago txertatzen hasten dira: *mua* erran beharrean *behia* erraten edota beti *pitxitxi* erran beharrean, noizbehinka *katua* hitza txertatzen. Hori egitearen arrazoia, umeak konturatzen eta asimilatzen joatea da, poliki-poliki kontura daitezkeen *pitxitxi* hitza erratean, katuari erreferentzia egin nahi zaiola.

Denek erraten duten bertze gauza bat *txitxi* hitzaren ingurukoa da. Gehienek aipatzen baitute *txitxi* hitza mantsoen desagertzen den hitza dela, gorago baieztatu dugun moduan (cf. §1.1.2.).

Beraz, BHH umearen aro gramatikalean erabiltzen den zerbait dela erran daiteke, arestian aipatu moduan (cf. §1.1.). Baina hizkuntzaren bertze tresna linguistikoak barneratzen doazen heinean, HH-ren erabilera gutxituz joaten da, elkarrizketaturiko subjektu guztiek aipatu duten moduan.



---

#### 4.2.5. BHH-ren erabileraren garrantzia: orokorrean, etxean eta eskolan.

Azkenik, hizkera mota honen erabileraren garrantziaz hitz egin beharra dago, modu orokorrean lehenik; etxeko inguruan zentratuz, bigarrenik; umeak eskolara joaten hasten direnetik aurrera azkenik.

Modu orokorrari dagokionez, erabiltzaileen artean gehienek garrantzitsua dela aipatzen dute, erabiltzen jarraituko dutela transmitituz. Erabiltzen ez duten AH1 eta AH2 subjektuek ,aldiz, logikoa den moduan, horrela hitz egiteari ez diote garrantzi handirik ematen, hasiera hasieratik helduen hizkuntzan hitz egitea egokiena dela baieztatuz. Hala ere, aipatzekoa da AH1 subjektuari erabileraren edo erabilera ezaren inportantzia galdetzen zaionean, ez dakiela arrazoi bat ematen, ohitura kontua dela aipatzen du berriz ere. Inportantzia ematen dietenen kasuan ere berdintsu gertatzen da, ohitura kontuagatik erabiltzen dute. E2 subjektuak ,adibidez, galdera hori egitean aipatzen duenaren arabera, anitzetan entzun izan omen du HH helduen hizkerarako bidean oztopo bertzerik ez dela. Baina bere esperientziaren arabera, berari eta bere ingurukoei hala egin omen diete eta berak ere beti haur hizkera erabili izan omen du; gauzak horrela, pertsona horiek ez omen dute inoiz ere arazorik izan helduen hizkera erabiltzen hasteko.

Denek ere bat egiten dute, BHH-ren erabilera eremuari buruz galdetzean. Etxeko kontua dela erantzun dute, hau da, beraien ustez, HH familiak, herrikoek edota haurraren ingurukoek erabiltzen dute, baina eskolan helduen hizkeran hitz egingo zaie, eskola helduen hizkera erakusteko lekua baita.

Beraz errandako guztia laburbilduz, orokorrean gehienek garrantzitsua dela pentsatzen dute, baina BHH-ren erabilera ez dago adinari lotuta, gure hasierako hipotesian aipatzen genuen moduan. Argi geratu da, kultura bateko mailan unibertsalki jotzen diren ideia edo ezaugarriak, familia edo norbanako bakoitzaren arabera alda daitezkeela, salbuespena ager daitezkeela alegia.



---

## ONDORIOAK

Burururiko ikerketan lorturiko informazioa aztertu ondotik, baita gaiaren inguruan aurki daitekeen informazioa behatu eta aztertu ondotik ere, zenbait ondorio ateratzeko tenorea da bai gaiari modu orokorrean helduta, baita Baztan ibarrean zentratuta ere.

Lehenik eta behin, Euskal Herri mailan gaiaren inguruko ikerketa sakon bat beharrezkoa dela ikusi dugu, izan ere, aurkitutako informazioaren arabera, hitzen bilketa eta bildumez aparte, ezer gutxi baitauekagu. EHH hitzen zerrenda bat baino gehiago da, bai maila fonetikoari eta morfosintaktikoari erreparatuz, esanguratsuak diren eta oraindik ere bizirik dirauten ezaugarriak baititu eta. Ezaugarri horietako batzuk Lekuonak (1921) era sistematikoan bildu zituen garai haietarako. Eta ia 100 urte pasa ondotik, ezaugarri haiekin gelditu eta ez dugu modu sistematikoan burururiko ikerketarik, Zubiriren lanak salbuespen (1995; 2002). Baztan abiapuntu aproposa izan daiteke, egindako ikerketarekin ikusitakoaren arabera, oraindik ere HH bizirik mantentzen duen zonalde bat baita. Bertan era ez sistematikoan bildutako zerrenda hori osatu, galdeketak egin eta ikerketa zorrotza egitea arras aberasgarria izanen litzateke. Guk burururiko ikerketa labur honi jarraipen sakonago bat ematea litzateke egokiena, bidean zehar zehazteko hainbat gauza geratu baitira.

Bertze alde batetik, argi ikusi da, ikerketaren muinean zegoen mailaketa unibertsal hori bete-betean gauzatu dela. Hots, garbi ikusi da ezaugarri edo ideia unibertsal jakin batzuen artean, beti salbuespenak izatea espero den moduan, horiek mailetan sailka daitezkeela, maila pertsonaleraino iritsi arte. Gure kasuan, HH-ren erabilera eta ezaugarriei dagokienean, ondorengo mailaketa hau ikusi ahal izan dugu:

mundu maila ► kultura maila (EHH) ► komunitate maila (BHH) ► maila pertsonala

Maila horietan salbuespenak egonen zirela argi zegoen, baina salbuespen horiek mundu mailatik hasi eta maila pertsonaleraino irits daitezkeela ikusi ahal izan dugu. Beraz, ezaugarriak, ideiak, ekintzak, etab. unibertsalak direla erratean, kontuan hartu beharra dago hizkuntzaren erabileran ezberdintasunak egonen direla, bereziki sinesmen, rol sozial, balore, nahiz talde barneko nahiz

---

taldeen arteko harremanen ezberdintasunak direla medio (Etxeberria, 2003: 41). Beraz, ikusitakoaren arabera, ez dago unibertsala den ezaugarririk, hau da, bai EHH-k eta baita BHH-ek ere HH-ren multzoan sartuko diren ezaugarriak dituzte, baina hiztunen erabileraren arabera salbuespenak agertuko dira beti.

Gure ikerketa enpirikoari dagokionez, hasieran planteatu genituen helburuak (cf. §1.2.) betetzea lortu dugu. Alde batetik, hasmenta hartan zehazturiko hipotesiak baieztatu edo ukatu ahal izan ditugu. Eta egia erran, hasierako hipotesietan plazaratutakoa eta gerora ikusi duguna ez da beti bat etorri. Lortutako emaitzak nahiko positiboak direla iruditzen zaigu, izan ere, gaiaren inguruan geneuzkan ideiak nahiko negatiboak baitziren eta guk uste baina positiboagoak izan dira, gazteek ere BHH erabiltzeko ohitura daukatela ikusi baita. Bertzalde, BHH eta HH-ren artean ezberdintasunak egonen zirela begi bistakoa zen, salbuespenak beti baitaude. Hortaz, BHH-ren hiztunen erabileraren arrazoiak ezberdinak direla ikusi dugu, norberaren nahiei edo ohiturei lotuta baitaude gehienetan.

Hezkuntza munduari lotuz, irakaslearen hizkerari buruz ezer gutxi idatzita dagoela ikusi dugu, nahiz eta hitz egiteko moduak haurraren zer eragin handia daukan ikertua egon. Irakasleek gure gizartean ematen ari den aldaketa horretarako prest egon behar dute, umeak gero eta lehenago eskolatzen ditugunez, pentsatzekoa baita horietako anitzei etxean HH-n mintzatuko zaizkiela. 3 urtetik gorako ikasleekin arazoa ez da hain larria, HH-ren erabilera adin horretarako ia desagertua egoten baita, baina 0-2 urte bitartean zer? HH bidez hitz egiteak, beharbada, ez die jabeakuntzaren aldetik anitz erakutsiko, baina zuzena eta jasoa den hizkuntza hori erakusteak ere zerbaitetarako balioko ote du? Gaur egungo ikasleen artean (batez ere zonalde elebidunetan), eskolan ikasitako hizkuntza formal horrek zerbaitetarako balio ote die ikasleei? Kanpoan erabiltzen ote dute? Zenbaitzuk pentsa dezakete HH-ren erabilerak haurraren ikaskuntza prozesua zailtzeko edo bazterrak nahasteko bertzerik balio ez duela (Zubiri, 2002: 27). Kasu horietan, bertzelako helburuak hartzen ditugu aintzat, hala nola, umearekiko hurbiltasuna, goxotasuna, umeari segurtasuna helaraztekoa... 0-2 urte bitarteko haurrentzako arras garrantzitsuak diren kontzeptuak dira, adin horietan sentikortasun handiarekin jokatu behar izaten baitugu. Honekin ez dut erran nahi, HH erabili gabe kontzeptu horiek bete ezin daitezkeenik, baina hurrei HH-ren bidez hitz egiteak bidea errazten du. Aztertu beharreko bertze afera bat, gaur egungo irakasleek hizkera horren

---

berri ba ote duten litzateke, beharbada, irakasleak formatzen hasi beharko ginateke eta.



---

## ERREFERENTZIAK

Aurkerena, J., Covadonga, G. eta Zelaia, J., 1999. *Haur hizkera*. GERO, Euskal liburuak. Bilbo.

Azkue, R., 1891. *Euskal-izkindea*. Bilbo. 24-25.

Azpirotz, I. eta Lizarraga, J. I., 2010. *Haurren munduko hiztegi txikia. Hitzak, esaerak eta kantak*. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua. Nafarroako Gobernua.

EREGLI, 2006. *Ku-ku! Haurrekin hitz egiten hasteko*. Euskara eta komunikazioa. Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea.

Brown, R., 1977. "Introduction" in Snow, C., Ferguson, C., *Talking to Children: Language Input and Acquisition*. New York: Cambridge Univ. Press. 1-27.

Eizezabarrena, M., 1996. *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. EHUko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo.

Etxeberria, f., 2003. *Hizkuntzaren Psikopedagogia*. Elhuyar. Donostia.

Fernald, A. y Simon, T., 1984. *Expanded intonation contours in mothers' speech to newborns*. *Developmental Psychology*: 10.

Fernald, A., Taeschener, T., Dum, J., Papousek, M. eta Fukui, I., 1989. "A cross-language study of prosodic modifications in mothers' and fathers' speech to preverbal infants". Department of Linguistics. University of Manchester. 477-501.

Firth, J.R., 1957 [1934, 1951]. *Papers in Linguistics*. London: Oxford University Press

Izeta, M., 1996., "Aitzinsolasa" in *Baztango hiztegia*. Iruñea. 13.

Labov, W., 1972. *Sociolinguistics Patterns*. Philadelphia. (Trad. Esp. de: Marinas Herreras, J.M., 1983. *Modelos sociolingüísticos*. Madrid.

---

Lakar, M eta Salaburu, P., 2006. *Baztango mintzoa. Gramatika eta hiztegia*. Mendaur Bilduma. Nafarroako hezkuntza Departamentu. Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

Larrea, I., 2007. "0-3 urteko haurren garapena eta eskola". Doktorego tesia. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Mondragon Unibertsitatea. Baita online ere:

<http://www.mondragon.edu/files/huhezi/tesiak/inaki-larrea-hermida> [Kontsulta: 2013-05-28]

Lekuona, M., 1921. "Lenguaje infantil" in *Anuario de Eusko Folklore*, 1. 31-37.

Lekuona, M., 1978. "Lenguaje infantil" in *Eusko Etnografia*, 2, Kardaberaz bilduma, Tolosa.

Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2011. "Sistema de Indicadores de la educación de navarra". Servicio de Inspección Técnica y de Servicios. Área de Evaluación del sistema. Gobierno de Navarra. Baita online ere: <http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/indicadores2011.pdf> [Kontsulta: 2013-05-28]

Owens, R.E., 2003., "Procesos en la adquisición del lenguaje" in *Desarrollo del lenguaje*. Pearson, Madrid. 173-180.

Papousek, M., Papousek, H. eta Haekel, M., 1987. *Didactic adjustments in fathers' and mothers' speech to their three-month-old infants*. Journal of Psycholinguistic Research 6. 49-56.

Richelle, M., 1984 (1971). *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Herder.

Rondal, J.A., 1990. *La interacción adulto-niño y la construcción del lenguaje*. México: Trillas.

Salaburu, P., 1996. "Baztango hizkeraz hitz pare bat" in Izeta, M. *Baztango Hiztegia*. 15-22.

Schieffelin, B.B. eta Ochs, E., 1986. "Language socialization". *Annual Review of Anthropology*, 15. 172-176.

Schieffelin, B.B. eta Ochs, E., 1987. *Language Socialization Across Cultures*. Cambridge: Cambridge University Press.



---

Serra, M., Serrat, E., Solé, R., Bel, A., Aparici, M., 2000. *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Ariel.

Snow, C. 1986., “Conversations with children” in Garman, M. and Fletcher, P. (eds.), *Language acquisition*. Cambridge: Cambridge University Press.

Thiesen, E.D., Hill, E.A., Jenny, R. and Saffran, J.R., 2005. “Infant-directed speech facilitates word segmentation” *Infancy* 7. 1.

Zuazo, K., 2008. *Euskalkiak: euskararen dialektoak*. Elkar.

Zubiri, J.J., 1995. “Euskarazko haur hizkuntzaren berezitasunak” Huarte de San Juan. *Hizkuntzaren Filologia eta didaktika*. 177-203

Zubiri, J.J., 1999. *Transkribaketak: Egoitz 1;03-3;00 (1991-1993)*. Jabego Intelektualeko Erregistro- Zenbakia: NA-3082.

Zubiri, J.J., 2002. “Haur hizkeraren erabileraz” *HIZPIDE* 49, 16-30.